



# Hizkuntza Eskubideen egoera 2021

 [www.behatokia.eus](http://www.behatokia.eus)

 @behatokia

 @HizkuntzEskubideenBehatokia

 @behatokia

 HIZKUNTZ  
ESKUBIDEEN  
BEHATOKIA

**Izenburua:** HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGOERA 2021

**Mota:** urteko txostena

**Egilea:** HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA

**Argitaratze data:** 2022ko martxo

**Argitalpen digitala:** [www.behatokia.eus](http://www.behatokia.eus) webgunean eskuragarri



**Oharra:** argitalpen honetako eduki guztiak Creative Commons erakundearen Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC) lizentziaren menpekoak dira.

## HITZAURREA

## HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA, HERRITARREN ESKUBIDEEN DEFENTSAN BIDELAGUN ETA ERAGILE

## URTEKO BERRIAK

## SARRERA

## DATUAK

- Datu orokorrak
- Datuak arloka

## ZERBITZU PUBLIKOAK EUSKARAZ

## ARLOKAKO AZTERKETA

- 01 Estatuetakoko administrazioak
- 02 Administrazio jarduera orokorrak
- 03 Osasungintza
- 04 Segurtasuna eta Herrizaingoa
- 05 Hezkuntza
- 06 Herriko etxeak eta udalak
- 07 Kultura, aisia eta kirola
- 08 Lan mundua / Arlo sozioekonomikoa
- 09 Interes orokorreko zerbitzuak

# HITZAURREA

Gogoan dut, bai, duela bi hamarkada baino gehiago, hizkuntza-eskubideen eremuan lan egiteari ekin nionean iltzatuta geratu zitzaidan printzipio bat: hizkuntza-eskubideek bi norantza dute, aktiboa eta pasiboa, eta benetakoa bermea gerta dadin bi norantzak hartu behar dira kontuan.

Printzipio hori Nafarroako Euskararen Legeak ezarrita zuen bereizkeria agerian uzteko balio zigun. Izan ere legeak ezarritako eremu mistoan herritarrei administrazioa euskaraz zuzentzeko eskubidea aitortu arren, administrazioak euskaraz erantzutekoa ez zegoen jasota. Bai, noski, hori guztia marko juridikoaren barruan zegoen, euskaraz ez baitu estatus ofizialik eta, ondorioz, ez dago eskubidearen bi norantzak legez aitortzerik.

Esan bezala, beraz, administrazioari euskaraz zuzentzeko eskubidea bi norantzen arabera ardazten da, eta administrazioko langileari euskaraz egitea ez ezik, erantzuna euskaraz jasotzea ere badagokigu. Kontua da, noski, horretarako beharrezkoa dela langilea elebiduna izatea. Hau da, langile elebidunak soil-soilik bermatu ahal izango ditu herritar guztien eskubideak.

Tamalez, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak aurkezten duen 2021eko urteko txostenak argi gorria pizteko moduko datuak agertzen ditu. Oso kezkatzekoa da Nafarroan gertatu dena, herritarren eskubideen urraketa betiketuko duten ehunka langile kontratu baitituzte. Horrekin batera, eskubideak bermatzeko udalek hartu dituzten erabakien aurrean oldartu da botere judiziala. Euskal Autonomia Erkidegoan ere, oraindik, ez da erabaki irmorik hartu herritarren eskubideak urratuko dituzten lanpostuen iturria ixteko, eta hor ere ikusi dugu botere judizialaren esku-hartzea langileen euskalduntzean ere azken hitza haiek dutela ohartarazteko. Ipar Euskal Herrian, zer esanik ez....

Halere, berretsi behar dugu badagoela, bai, administrazioa euskalduntzeko formularik. Lehenik eta behin, araubide juridiko egokia onartu beharko da. Bigarrenik, nola ez, administrazioa euskalduntzeko plangintza integrala jorratu beharko da, eta ber-

tan berebiziko garrantzia izango du euskalduntze-prozesuari epeak zehazteak. Izan ere, administrazioaren euskalduntze-prozesua ezin da *ad eternum* luzatu. Plangintza horrek, gainera, neurri traktoreak izan beharko ditu, besteak beste, langile berri guztiek hizkuntza-gaitasun egokia izan dezatela. Azkenik, beharrezko baliabideak esleitu beharko zaizkio prozesuari. Eta, nola ez, epe zehatz batean administrazioa euskalduntzeko prozesuari ekinez gero, euskalgintza hor izango dute instituzioek bidelagun. Sektore batzuk horren aurka oldartzen badira ere, gizartea prozesuaren alde jarriko dugu, babesa eskainiko dugu.

Izan ere, Behatokiaren txostenak argi uzten duen bezala, administrazioaren euskalduntzeak lotura zuzena du herritarren eskubideen bermearekin. Ondorioz, gizarte berdinzalea, justua eta kohesionatua eraikiko badugu, nahitaezkoa izango da herritar guztiei eskubide berdinak bermatzea. Jauzia egin dadila, beraz, administrazioaren euskalduntzean, herritarron berdintasuna helburu.



**Paul Bilbao Sarria**  
Hizkuntz Eskubideen Behatokiko lehendakaria

# HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA, HERRITARREN ESKUBIDEEN DEFENTSAN BIDELAGUN ETA ERAGILE

2021eko ekainean, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak 20 urte bete zituen. Bi hamarkada hauetan, Euskal Herriko herritarren komunitateak beharrezko duen eskubideen defentsarako tresna izan da Behatokia. Tamalez, duela 20 urteko egoerak gainditzeko sortutako tresnak, egun ere beharrezkoa izaten jarraitzen du. Izan ere, aurre-rapausoak eta lorpen ugari izan diren arren, eremu gehienetan orain 20 urteko antzeko egoeretan aurkitzen gara eta zenbaitetan urte hauetan emandako pausoak edo egindako lorpenak kinka larriak izan daitezke aurrerantzean.

Behatokiak ezingo luke urteroko irakurketa herritarren determinazio gabe osatu. Behatokia herritarrek mugitzen dute, Euskal Herri osoan zehar, ikasi, lan egin, zerbitzuak jaso, ondasunak erosi, zein aisiaz gozaten duten herritarrek. Euskaraz bizi nahi duen eta horretarako eskubidea duen herria bada beraz.

Hizkuntz Eskubideen Behatokia, herritar horien guztien bidelagun den heinean, eragile ere bada eta aipatutako determinazio horri esker, gizarteko hainbat esparrutan eragin eta aldaketa txiki eta handiak bultzatzea lortzen da. Askotan berehalako neurriak hartzea kostatzen den arren, erakunde publiko zein pribatuen kontzientzian eragiten saiatzen gara eta herritarren eskubideak balorean jarriz, konpromiso edo aldaketak ere lortzen ditugu. Adibidez, 2021ean besteak beste, deialdi batean euskara kontuan hartzea eta deialdia atzera botatzea lortu zen; udal batzuetan azpikontrataturako zerbitzuei hizkuntza

betebeharrak berariaz bete zitzaten, kontratazioetan horiek azpimarratzeko konpromisoak eta aldaketak lortu ziren; erakunde publiko eta pribatu ezberdinetako arreta, paisaia linguistikoa eta baliabide telematikoetan aldaketak egitea lortu zen. Erakunde publikoetan eragiteko asmoz, kasu batzuetan, Kontseiluarekin batera hurrengo urteetarako departamentu ezberdinetako planetan ekarpenak egin eta beharrianak ere detektatu ziren (EAEko Osakidetzako plana, Nafarroan euskararen plana, berdintasun plana,...), guztietan hizkuntza-eskubideak bermatzeari begirako neurriak proposatu.

Bestalde, 20 urte hauetan beraien determinazioz eta lege betebeharrak izan gabe herritarren hizkuntza-eskubideekiko aitortza egunero egikaritzen duten entitate, enpresa, erakunde zein norbanakoen determinazioa ere ezin alde batera utzi eta horregatik, Behatokiaren bidez 2021ean ere herritarrek zori ondutako entitateak hainbat izan ziren. Hona hemen adibide batzuk:

## 53-2021 dosierra

“Martini etxea zori ondu nahi dut. Izan ere, euren publizitatea agertu zait Facebooken, euskara hutsean.”

## 1285-2021 dosierra

“Antsoaingo Autokit tailerrean egon nintzen abenduaren 17an eta euskaraz artatu ninduten.”

## 517-2021 dosierra

“Mila esker Maia erlea euskaraz zuen zineman jartzeagatik!”

## 723-2021 dosierra

“Tendam Retail, SA enpresak euskara gehitu du bere Springfield markako produktu etiketetan (Turkian egina, kotoia, elastanoa, garbitu makinaz xaboi edo garbigarri batekin, geh. 30°C-tan zentrifugazio laburra, etab.) eta horrekin erakutsi digu ez dela hain zaila euskarazko informazioa eskaintzea eta borondate-kontua baino ez dela.”

## 620-2021 dosierra

“Mila esker euskarazko atala konpontzeagatik eta gora zuek euskaraz disfrutatzeo egiten duzuenagatik!”

## 239-2021 dosierra

“Eco-Laundry enpresak postontzietan publizitate eskuorria sartu du, elebitasun orekatuan egina.”

## 693-2021 dosierra

“Noticias taldeko egunkariaren domeketako aldizkari berriari Soriako Diputazioak turismo iragarkia plazaratu du euskaldunok aintzatetsita. Sarritan Euskal Herriko

bertako herri-administrazioek ez gaituzte kontuan hartzen; gainera legedia urratuz. Hortaz, estimatzekoa begitantzen zait So-riako diputazioaren portaera. Milesker!”

**796-2021 dosierra**

“Wikai telekomunikazio enpresa nafarra zoriondu nahi dut gure herrian etxez-etxe banatu duten eskutitza euskaraz dagoelako. Gainera, lehentasuna eman diote euskarazko aldeari.”

**783-2021 dosierra**

“Pizza Gino pizzeriak bere web-orria frantses hutsean badauka ere, karta osorik euskaraz eskuratzeko aukera ematen du. Hortaz, Pizza Gino zoriondu nahi dut euskaldunoi karta euskaraz irakurtzeko parada emateagatik.”



**873-2021 dosierra**

“Irungo Armendia okindegian idatzizko informazioa euskaraz ere ukateaz gain zerbitzariak euskaraz egin didalako nik hari euskaraz egitean, mutur izan gabe. Arrunt eskertu dut!”

**LEHEN**



**ORAIN**



## LEHEN

**PUENTE BIZKAIA** 15 Años de Patrimonio Mundial Industrial - Un valor Universal Excepcional

### III CONCURSO PINTURA RÁPIDA

Terraza del Puente Bizkaia (Getxo)  
Sábado 17 de Julio  
De 09 a 17:00 h.  
19:00 H. ENTREGA DE PREMIOS (Terraza de Portugalet)

Bases: [www.puente-colgante.com](http://www.puente-colgante.com)  
Inscripciones: [promocion@puente-colgante.com](mailto:promocion@puente-colgante.com)

## ORAIN

**BIZKAIA ZUBIA** 15 Años de Patrimonio Mundial Industrial - Un valor Universal Excepcional

### III PINTURA AZKARRAREN LEHIAKETA

Bizkaia Zubiko terraza (Getxo)  
Larunbata, uztailak 17  
09:00etatik 17:00etara  
19:00ETAN SARI-BANAKETA (Portugaleteko terrazan)

Bainarriak: [www.puente-colgante.com](http://www.puente-colgante.com)  
Izen-emateak: [promocion@puente-colgante.com](mailto:promocion@puente-colgante.com)

MASMOVIL 4G 19:22 % 51

Not Secure — bai-bai.net

Euskara  
Español

**bai** Bizkaiko antzerki-irratia Centro de formación escénica

MENU

TALLERES INFANTILES (4 A 16 AÑOS)

**Formulario de inscripción**

Para inscribirse a los talleres infantiles rellenar el formulario [aquí](#).

Si tienes dudas o preguntas sobre la inscripción o el formulario contactar al teléfono 944389096 / 685753873

MASMOVIL 07:58 % 68

Not Secure — bai-bai.net

MENU

FORMAZIO PROFESIONAL ARTE ESZENIKOETAN

**Izena emateko orria**

Ikasketa osoetan izena emateko, bete horria [hemen](#).

Bete horri buruz zalantzak edo galderak badituzu, idatzi [info@ba-bai.net](mailto:info@ba-bai.net) edo deitu 944389096 / 685753873

\*Uztaila eta abuztuan eskola itxita egongo da. Izen-emotea data horietan egiten baldin baduzu kontutuan izan erantzuteko denbora beharko dugula, baina zurekin kontaktuan jarriko gara berdin-berdin.

## LEHEN

HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN EUSKO JARRIARITZA GOBIERNO VASCO

**HEOL ZAILA** HEZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA EUSKARA CI-EGA DA

TARIFA ANUAL 72,36 €

MATRIKULA ZAITZEI IRAILA 1-17 SEPTIEMBRE

TÍTULOS OFICIALES:  
EUSKARA CI - EGA  
ENGLISH  
FRANÇAIS

GRUPOS DE MAÑANA / GOIZEKO TALDEAK  
GRUPOS SEMIPRESENCIALES / TALDE ERDIPRESENTZIALAK (on los 3 idiomas)

NOVEDADES:  
B21 FRANCÉS + INICIACIÓN AL INGLÉS (MAÑANA)

Servicio de Tecnologías e Infraestructuras TIC Educativas Hezkuntza Sailaren IT Arloko Zerbitzuak  
Saini Domingo, 8  
48900 Portugalete, Vizcaya  
Tel. 944 405014  
[tecnologia@hezkuntza.euskadi.eus](mailto:tecnologia@hezkuntza.euskadi.eus)

Gobierno de Navarra Gobierno Foral de Navarra  
Departamento de Educación Hezkuntza Departamentua  
Saini Domingo, 8  
48900 Portugalete, Vizcaya  
Tel. 944 405014  
[tecnologia@hezkuntza.euskadi.eus](mailto:tecnologia@hezkuntza.euskadi.eus)

**INSTRUCCIONES DE PRÉSTAMO DE DISPOSITIVOS A LOS CENTROS EDUCATIVOS DE LA RED PÚBLICA.**

Dentro de la estrategia de Transformación digital educativa IkasNOVA, el Departamento de Educación pone a disposición del alumnado un Chromebook. Dada la titularidad pública de los Chromebooks, con carácter previo a la distribución de los equipos es necesario establecer unas instrucciones de Préstamo.

- 1. Objeto y finalidad**
- Este servicio de préstamo del Departamento de Educación del Gobierno de Navarra, tiene como fin impulsar la estrategia de transformación digital educativa IkasNOVA.
  - El bien objeto del préstamo no podrá ser utilizado para otras actividades fuera del ámbito educativo.
  - El servicio de préstamo será supervisado y coordinado en el centro por los tutores y por la persona responsable de transformación digital educativa.
- 2. Destinatarios**
- Podrá acceder a este servicio de préstamo el alumnado matriculado en algún curso a partir de 4º de Primaria.
  - Los tutores legales, al hacer uso de este servicio, aceptan las responsabilidades, condiciones e instrucciones del presente documento.
- 3. Titularidad**
- Los elementos de préstamo son propiedad del Departamento de Educación.
  - El equipo que se preste podrá no ser nuevo, habiendo sido utilizado previamente por el alumnado, por lo que pudiera tener el correspondiente desgaste por su uso, pero se entregará en perfecto estado de funcionamiento y sin roturas.
  - Una vez que progenitores o tutores legales hayan aceptado las instrucciones de préstamo, asumen su responsabilidad en cuanto al buen estado y custodia del equipo.
- 4. Obligaciones**
- Cada estudiante tendrá asignado un equipamiento transferible, que constará de un Chromebook, su cargador y una funda o maletín de transporte.
  - El alumno o alumna, además de utilizarlo en el aula, podrá llevarlo a casa.
  - Es obligatorio el uso de la funda de protección proporcionada por el

## ORAIN

HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN EUSKO JARRIARITZA GOBIERNO VASCO

**HEOL ZAILA** HEZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA EUSKARA CI-EGA DA

72.36 € URTEAN AL AÑO

**MATRIKULA ZAITZEI MATRICÚLATE**

TITULO OFIZIALAK / TÍTULOS OFICIALES

EUSKARA CI - EGA  
ENGLISH  
FRANÇAIS

GRUPOS DE MAÑANA / GOIZEKO TALDEAK  
TALDE ERDIPRESENTZIALAK / GRUPOS SEMIPRESENCIALES

NOVEDADES / BERRIAK  
B21 FRANCÉS  
A1 ENGLISH GOIZEZ / POR LA MAÑANA

Servicio de Tecnologías e Infraestructuras TIC Educativas Hezkuntza Sailaren IT Arloko Zerbitzuak  
Saini Domingo, 8  
48900 Portugalete, Vizcaya  
Tel. 944 405014  
[tecnologia@hezkuntza.euskadi.eus](mailto:tecnologia@hezkuntza.euskadi.eus)

Gobierno de Navarra Gobierno Foral de Navarra  
Departamento de Educación Hezkuntza Departamentua  
Saini Domingo, 8  
48900 Portugalete, Vizcaya  
Tel. 944 405014  
[tecnologia@hezkuntza.euskadi.eus](mailto:tecnologia@hezkuntza.euskadi.eus)

**SARE PUBLIKOKO IKASTETXERIK GAILUKA MAILEGATZEKO JARRAITIDIAK**

IkasNOVA izeneko Hezkuntzaren Eraldaketa Digitalerako Estrategiaren barruan, Hezkuntza Departamentuak chromebook bat jartzen du ikasleen eskura. Chromebooken titulatasun publikoak dela eta, ekipook banatu aurretik, maileguzko jarrabide batzuk ezarri behar dira.

- 1. Xedea eta helburua**
- Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mailegu zerbitzu honen helburua "IkasNOVA" izeneko Hezkuntzaren Eraldaketa Digitalerako Estrategia sustatzea da.
  - Maileguzko zerbitzu honen erabilera ezin izan da erabili hezkuntza eremutik kanpo beste jarduerara baturarako.
  - Tutoreek eta hezkuntzako eraldaketa digitalaren arduradunak gainbegiratu eta koordinatu dute mailegu zerbitzua ikastetxean.
- 2. Hartzaileak**
- Mailegu zerbitzu hau eskuratzeko behar du Lehen Hezkuntzako 4. mailatik aurrera ikaslearen baten matriculatura duen ikasleak.
  - Zerbitzu hori erabiltzean, legezko tutoreek dokumentu honen erantzukizunak, baldintzak eta jarrabideak onartzen dituzte.
- 3. Titulatasuna**
- Mailegatu beharrezko elementuak Hezkuntza Departamentuarenak dira.
  - Ematen den ekipoa behar bada ez da berria izanen, ikasleek aurretik erabili badute. Beraz, erabilera horren gidaraz izan dezake, baina funtzionamendu egokia ezin izan eta baturarako gabe entregatu da.
  - Gurasoek edo legezko tutoreek maileguzko jarrabideak onartu ondoren, beren gain hartzen dute ekipoparen egoera onari eta zaintzari buruzko erantzukizunak.
- 4. Hetebeharzak**
- Ikasle bakoitzak ekipoa besterik ezin izan du erabili, chromebookak, kargagailuak eta zorroak edo garrak mailetan sartuak.
  - Ikasleek, ikasgelan erabiltzeaz gain, etxera eraman behar du.
  - Derrigorrezkoa da Hezkuntza Departamentuak ematen duen babes zorroa edo antzeko enbaxagarriak dituen beste bat erabiltzea.
  - Osorik kargatuta ezarri beharko du eguneroko ikastetxera, eskola-egun osoan erabili ahal izateko. Kargagailua ez da ikastetxera eraman behar: etxean utzi behar da.
  - Ikasleek dagokien bai ekipoa, bai babes zorroa, garbi mantentzea.
  - Ikasleek ekipoa erabiltzean etiketa (edo serigrafia) zaindu beharko dute. Hondatzen bada, tutoreari jakinarazi beharko dio.

# URTEKO BERRIAK

Ikasturte berrian D ereduan matrikulatzeko aukera izatea lortu zen Mendigorrian



URTARRILA

Behatokiaren 2020ko Urteko Txostenaren aurkezpena



MARTXOA

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Irungo Udaltzaingoko lanpostuei ezarritako hizkuntza eskakizunak bertan behera uzteko epaia



MAIATZA

“Hizkuntza- eskubideak ez daude oporretan” sentsibilizazio eta aktibazio kanpaina



UZTAILA

Udan zehar jasotako intzidentzien balorazioa eta kontzientziazioaren, neurrien eta baliabideen eskaera



IRAILA

Behatokia eta Kontseiluaren ekarpenak Nafarroako Bigarren Euskararen Planari



AZAROA

OTSAILA



Nafarroako Gobernuak atzera bota zituen Behatokiak ikastetxeetako onartze araudiaren Foru Dekretuari egindako ekarpenak

APIRILA



“Euskara harrera hizkuntza” tailerrean parte hartzea

EKAINA



Behatokiaren 20. urteurrena. Nafarroako lan-postu publikoetan hizkuntza- eskubideak bazterrean uzten jarraitzen da

ABUZTUA



LORPENA: Udaltzaingoen aldi- baterako lan-poltsetarako hizkuntza- eskakizuna ezartzea lortu zen, hobetzeko asko dagoen arren

URRIA



Nafarroan ikastetxe publikoetako gurasoen, SORTZENen eta Behatokiaren eskaera Hezkuntza Departamentuari, azpikontratatuak zerbitzuetan euskara kontuan hartzea eskatzeko

ABENDUA



Behatokiaren marka eta webgune berriaren aurkezpena



# SARRERA

Euskararen herrian euskaraz mintzatzeko, administrazioei zuzendu eta administrazioetatik zerbitzuak jasotzeko, (osasuna, hezkuntza, justizia, edo beste edozein zerbitzu), bai eta orokorrean, jendarteak eskaintzen dituen aukerak euskaraz baliatzeko eskubideak babestea da Behatokiaren xedea.

Horretarako Euskararen Telefonoa zerbitzua eskaintzen dio Hizkuntz Eskubideen Behatokiak doan euskal hiztunen komunitate osoari. Zerbitzu honen bidez Behatokiak Administrazioei, enpresei eta edozein motatako entitateei herritarrek zuzendutako kegak, zorion mezuak eta kontsultak bideratzen ditu.

Administrazio publikoen eremuan zein sektore sozioekonomikoan, euskaraz jarduteko eskubidea errespetatu ez zaienean herritarrak Euskararen Telefonoa bidez Behatokira idatzi edota kexa bat igortzen duenean, jarraipena egin ahal izateko dossier bat ireki eta zenbaki bat egokitzen dio jasotako kasu bakoitzari. Behatokiak zerbitzua erabiltzen duten pertsonen konfidentziasuna gordetzen du baina ez du kexa anonimorik onartzen.

Horrela bada, ondorengo lerro hauetan islatuko dugun azterketa herritarrek Behatokira helarazitako gertaeretan oinarritzen da, beraiek euren egunerokoan izan dituzten bizipenak dira azterlan honen iturria eta euskal hiztunen benetako egoerara, egunerokotasunera, gerturatzen gaituzte.

“ Euskararen Telefonoa zerbitzua eskaintzen dio Hizkuntz Eskubideen Behatokiak doan euskal hiztunen komunitate osoari ”



BEHATOKIAREN ZERBITZUA

## Euskararen telefonoa

Euskararen telefonoa Behatokiaren doaneko zerbitzua da. Hizkuntza-eskubideen urraketei konponbidea emateko tresna. Zerbitzu hau Euskal Herriko edozein herritarren eta elkarteren eskura dago.

Sartu Intzidentzia

euskararentelefonoa.eus +34 948 14 61 72

# DATU OROKORRAK

## 2021eko DATUAK


### ERREGISTRO MOTA

Kexak  
Zoriontzeak / Esker onak  
Iradokizunak  
Kontsultak  
Izaera gabeak

### KOPURUA

1.199  
73  
29  
13  
6  
**1.320**

## KASU KOPURUAREN BILAKAERA (2002-2021)



# DATUAK ARLOKA

## SEKTORE SOZIOEKONOMIKOKO 2021eko DATUAK

EREMUA	KOPURUA
Aisialdia, Kultura Kirola	43
Eragileak Alderdi politikoak/sindikatuak/mundu asoziatiboa/erlijioa	21
Interes orokorreko zerbitzuak Energia hornitzaileak/garraioa/ telekomunikazioa	54
Finantza entitateak, aseguru etxeak	17
Hedabideak	2
Hezkuntza	5
Ikerketa eta lan mundua	3
Merkataritza gune handiak/kateak	89
Osasun zerbitzuak	18
Ostalaritza/merkataritza txikia/elikadura	57
Profesionalak eta zerbitzuak	29
<b>OROTARA</b>	<b>338</b>

## SEKTORE PUBLIKOKO 2021eko DATUAK

ERAKUNDEA	KOPURUA
Espainiako Estatuko Administrazioa	87
Frantziako Estatuko Administrazioa	5
Eusko Jaurjaritza	282
Nafarroako Gobernua	149
Euskal Hirigune Elkargoa	2
Arabako Foru Aldundia	5
Bizkaiko Foru Aldundia	46
Gipuzkoako Foru Aldundia	9
Baionako Herriko Etxea	6
Bilboko Udala	31
Donostiako Udala	22
Gasteizko Udala	46
Iruñeko Udala	45
Arabako udalak	4
Bizkaiko udalak	60
Gipuzkoako udalak	15
Nafarroako udalak	27
IEH Herriko etxeak	6
Mankomunitateak/Herri elkargoak	7
Eusko Legebiltzarra	1
Nafarroako Parlamentua	2
EAEko Arartekoa	1
Nafarroako Arartekoa	2
Besterik	1
<b>OROTARA</b>	<b>861</b>

## ZERBITZU PUBLIKOAK EUSKARAZ

Euskal Herri osoan hizkuntza-eskubideen aitortza eta errespetua egikaritu eta jendarte berdinzaleagoa eraikitze aldera, beharrezkoa da gizarteari eskaintzen zaion zerbitzu publiko guztietan administrazio publikoek hizkuntza-politika egoki bat aurrera eramatea. Horretarako, zerbitzu horien eguneroko funtzionamendua ahalbidetzen duten lanpostuetan neurri eraginkorrak hartu beharra dago eta nola ez, araudi egokia, zein bestelako bitarteko eta lan-tresnak sortzeaz gaindi, lanpostu publikoen deialdi guztietan euskaraz zerbitzua eskaini, zein euskaraz lan egin ahal izateko neurriak ere behar dira. Azken hamarkadetan Euskal Herriko eremu batzuetan aurrerapausoak eman diren arren, euskaraz zerbitzuak berdintasunean eskaini ahal izateko oraindik bide luzea geratzen da; zenbaitetan, neurriek eritmo oso mantsoa dute, beste zenbaitetan ez dira egungo markoa gainditzeari begira jartzen eta tamalez, eremu batzuetan atzerapausoak ere ikusten ari gara.

Euskaraz bizitzeko eskubidea ez dago erdigunean, eremu sozioekonomikoan gaztelania zein frantsesaren hegemoniatatik zein globalizazioaren ondorioz, gero eta aitortza gutxiago du. Horregatik, administrazio publikoek eredu izan beharko lukete, baina euskararen lurralde guztietan gehiago edo gutxiago, antzeko arazo eta mugak daudela ikusten dugu, ondorioz, honek guztiak eragina du arlo pribatu zein publikoan. Hau gutxi balitz, zerbitzu publikoetan hizkuntza-eskubideak bermatzeari begira hartutako neurriekiko kontrako jarrerak eta epaitegi zein araubidean muga nabarmenak sortzen ari dira, beraz, hauek ere hurrengo urteetan bestelako urratsak eman ahal izateko oztopo nagusi izan daitezke.

Ezin daiteke euskaraz bizi ahal izateko eskubidea bermatu, lanpostu eta deialdi publikoen gaia behar bezala

tratatu gabe. Izan ere, hizkuntza-eskubideak langileen eskubideak zapaltzen dituztela sinestarazteko diskurtsoak gero eta gehiago zabaltzen ari dira eta honek, hizkuntza-eskubideak bigarren maila batean jartzea dakar.

Administrazio publikoko langileen betekizunak herritarrei eman behar zaien zerbitzuaren araberakoak izan behar dira. Esparru guztietan eta uneoro herritarrek euskara erabiltzeagatik inongo albo-kalte ondorioz jasan ez izateko, lanpostuei euskararen nahitaezko-tasuna ezartzea administrazioak bere eskuetan duen neurri garrantzitsuena da. Bestelako neurriak hartu daitezkeen arren (itzultzaileak, departamentu edo sail bakoitzean zirkuituak ezartzea, deialdietan euskara merezimendutzat hartzea...), horiek bakarrik ezin dute uneoro herritarrek erosotasunez euskara erabili ahal izango duela bermatu eta administrazio publikoko balibideen saturazioa edo efikazia eza ekartzen dute.

Gero eta gehiago, administrazio publiko batzuekin zuzenean frantsesa edo gaztelania erabiltzeko ohitura duten herritarrekin aurkitzen gara. Beraz, lanpostuetan neurri eraginkorrak eta irmoak ez hartzeak, herritarren erabilera ohituretan ere eragin dezake.

### NAFARROA

2021. urtean ere, Nafarroako Gobernuak hainbat lan deialdi atera zituen euskara inolaz ere kontuan hartu gabe. 103/2017 Foru dekretuaren (administrazio publikoan euskararen erabilera arautzen zuena) artikulua batzuk 2019an epaitegiek baliogabetu ostean, legeak ezarritako eremu misto eta ez euskalduneko lan-deialdi publikoetan euskara merezimendu gisa baloratu

“ Ezin daiteke euskaraz bizi ahal izateko eskubidea bermatu lanpostu eta deialdi publikoen gaia behar bezala landu gabe ”

gabe geratu izan da ehunka lan-deialditan. Izan ere, euskara nahitaezkoa ez zen eremu hauetako lan-deialdietan alemana, frantsesa edo ingelesa bezalako atzerriko hizkuntzek merezimenduen atalean puntuazioa izan zuten arren, euskararen ezagutza ez zen inolaz ere baloratu.

2021. urtean, besteak beste, euskara baloratu gabe, deialdi hauek publikatu ziren:

- Suhiltzaile-kaboen 15 lanpostu (NAO, 2021-04-16). “Eremu mistoan” eta “ez euskadunean” ez zen euskararen ezagutza puntuatu, baina frantsesa, ingelesa eta alemana bai. Eremu euskaldunean euskaraz jakitearen balioa % 9'09 izan zen (50'6 puntutik 4'6 puntu).
- Goi-mailako kirol teknikarien lanpostu hutsak lekuak lekuak bidez betetzeko deialdia (NAO)

2021-01-25). Ez ziren “eremu euskalduneko” lanpostuak, beraz euskara ez zen merezimendu izan, aldiz, atzerriko hizkuntzek puntuatu zuten (2 puntu bakoitzagatik).

- Gizarte-hezitzaileen lanpostu hutsak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdia (NAO, 2021-01-28). Ez ziren “eremu euskalduneko” lanpostuak, beraz euskara ez zen merezimendu izan, aldiz, atzerriko hizkuntzek puntuatu zuten (2 puntu bakoitzagatik).
- Osasun Laguntzako Taldeko medikuen 69 lanpostu, Larrialdietako Zerbitzu Arrunteko medikuen 26 lanpostu eta Larrialdietako Zerbitzu Bereziko medikuen 12 lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko, eta bestetik, hautaprobaren bitartez, izangaien zerrendak osatzeko deialdia izan zen aldi baterako kontratazioak egiteko. (NAO, 2021-02-11). 69 lanpostutatik 15etan bakarrik eskatzen zen euskararen B2 maila ezagutza (gehienak eremu euskaldunean), baina eremu euskalduneko 3 lanpostutan ez zen euskararen nahitaezko ezagutzarik ezarri. Gainerakoetan, euskararen balorazioa eremu euskaldunean %4.05ekoa izan zen (merezimenduen puntuaziotik, euskara jakin gabe 40 puntutik 39 lor zitezkeen). “eremu mistoan” eta “ez euskaldunean” ez zuen inolako puntuaziorik izan. Frantsesa, ingelesa eta alemana Nafarroa osoko lanpostuetan izan zen merezimendua “eremu mistoan” eta “ez euskaldunean”.
- Larrialdietako mediku albokoen 7 lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia eta bestetik, hautaprobaren bitartez, izangaien zerrendak osatzekoa (aldi-baterakoak) (NAO, 2021-02-11). 7 lanpostu horiek eremu misto edo “ez euskaldunean” kokatuak zeuden, beraz, euskara ez zen konputuan hartu baina atzerriko hizkuntzak merezimendu

izan ziren (frantsesa, ingelesa eta alemanak 2 puntu bakoitzak).

- Ospitaleko pediatren 28 lanpostu eta ospitalez kanpoko larrialdietako pediatren 6 lanpostu betetzeko deialdia eta hautaprobaren bitartez izangaien zerrendak osatzekoa (NAO, 2021-02-15). Eremu euskalduneko hiru lanpostutan euskara jakitea eskatu zen (B2). Gainerako 25 lanpostuetan frantsesa, ingelesa eta alemana baloratu zen (2 puntu bakoitzak, baina euskara ez).
- Pediatriako barrutiko fakultatibo espezialisten 2 lanpostu betetzeko deialdia eta izangaien zerrendak osatzekoa (NAO, 2021-02-16). Ez ziren “eremu euskalduneko” lanpostuak, beraz euskararen ezagutzak ez zuen puntuaziorik izan, bai ordea atzerriko hizkuntzek.
- Lehen mailako arretako eta larrialdietako 114 lanpostu. Euskararen ezagutza lanpostu gutxi batzuek izan zuten, gainerakoetan ez zen merezimendutzat hartzen, bai ordea atzerriko hizkuntzak (bakoitzaren ezagutzak 2na puntu).
- Industria ingeniariaren oposizio lehiaketa (NAO 2021-05-10). Ingelesa, nahitaezkoa izan zen 2 postutan. Alemaniera, ingelesa, eta frantsesaren ezagutza merezimendu izan ziren Nafarroa osoan (2na puntu), euskarak ez zuen puntuatu lanpostu biak eremu mistoan aurkitzen zirelako.
- Osasun Zerbitzuko erradiodiagnostikoko teknikari espezialisten (ETE) 10 lanpostu huts merezimendu lehiaketaren bidezko lekualdatzeaz betetzeko deialdia. (NAO, 2021-04-26). “Eremu misto” eta “ez euskaldunean” ez zen euskaraz jakitea puntuatu, baina frantsesa, ingelesa eta alemana bai.

- Osasun Zerbitzuko anatomia patologikoaren arloko teknikari espezialisten (APTE) 7 lanpostu huts merezimendu lehiaketaren bidezko lekualdatzeaz betetzeko deialdia. (NAO, 2021-04-26). “Eremu misto” eta “ez euskaldunean” ez zen euskaraz jakitea puntuatu, baina frantsesa, ingelesa eta alemana bai.
- Osasun laguntzako zerbitzibururu eta atalburuen lanpostuak aldi baterako izendapenez betetzeko prozedura. (NAO, 2021-04-23). Frantsesa, ingelesa eta alemana baloratu ziren, euskara ez.
- Osasunbidean erizainen 494 lanpostu huts merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzearen bitartez betetzeko deialdia (NAO, 2021-05-13). 37 lanpostutan nahitaezkoa zen euskararen ezagutza (eremu euskalduna eta mistoa). Eremu euskalduneko lanpostu bitan ez zen euskaraz jakitea eskatu (merezimendua soilik). Alemana, frantsesa eta ingelesa Nafarroa osoko lanpostuetan merezimendu izan ziren, aldiz, 457 lanpostutan euskara ez zen ezta merezimendu izan.
- Nafarroako Foruzaingoko inspektoreordeen hainbat lanpostu lehiaketa bidez edo berariazko lehiaketa bidez betetzeko. (NAO, 2021-05-18). “Eremu misto” eta “ez euskaldunean” euskaraz jakitea ez zen puntuatzen. Eremu euskaldunean kokatutako lanpostuetan 4’1 puntu izan zituen euskarak 120’1 puntutik. Gainerako Nafarroako eremuetan, frantsesa, ingelesa eta alemanak bina puntu izan zituzten.
- Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzailearen lanpostuak betetzeko izangaien bi zerrenda: bata, prestakuntzarako zerbitzu berezietan aritzeko, eta bestea, aldi baterako kontratazioak egiteko. (NAO, 2021-04-16). Eremu mistoan eta “ez euskal-

dunean” euskaraz jakitea ez zen puntuatu, bai ordea atzerriko hizkuntzen ezagutza.

• ...

Administrazioan euskararen erabilera erregulatzen zuten dekretuaren baliogabetzea ordea, ez da Nafarroako administrazioko zerbitzuak euskaraz eskaini ahal izateko oztopo bakarra. Oposizio bidez (merezimendu gabe) ateratzen diren deialdietan oso lanpostu gutxi dute euskararen derrigortasuna eta 2021ean izan ziren deialdietako hainbat lanpostu euskararen inolako ezagutzarik bermatu gabe bete ziren, aldi baterako lan zerrendak osatzeko deialdietan gertatu zen bezalaxe. Hona hemen zenbait adibide:

- Zerbitzuko telekomunikazioetako ingeniarien bost lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia (NAO, 2021-04-12).
- Lehen mailako ofizial eta mantentze-lanetako ofizial izateko berrogeita hamahiru lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia (NAO, 2021-04-12). Deialdi honetako sei lanpostutan soilik eskatu zen euskararen B2 mailako ezagutza.
- Zerbitzu orokorretako ehun eta berrogeita hamazazpi lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia (NAO, 2021-04-14).
- Suhiltzaile izateko 37 lanpostu, oposizio bidez betetzeko deialdia (NAO, 2021-03-15).
- Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaileen hogeita zortzi lanpostu (NAO, 2021-01-29).
- Aholkulari juridikoen 4 lanpostu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde

autonomoen zerbitzuan aritzeko. (NAO, 2021-02-04).

- Erdi-mailako teknikarien (argitalpenak) lanpostuak betetzeko izangaien bi zerrenda hautapoben bidez osatzeko (NAO, 2021-01-29).
- Erdi mailako tituludun lanpostuetan (prestakuntza teknikaria) aritzeko izangaien bi zerrenda eratzeko deialdia (NAO, 2021-02-01).
- Zortzi industria ingeniari lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia (NAO 2021-05-01).
- Osasun kudeaketako teknikarien zortzi lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia (NAO 2021-05-17).
- Foru Komunitateko kazetari izateko hamar lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia (NAO, 2021-06-30). Lau lanpostutan eskatu zen euskaraz jakitea, gainerako sei lanpostuetan ez zen eskatu ezta merezimendu moduan kontuan hartu.
- Arkitekto tekniko izateko bederatzi lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia (NAO, 2021-06-30). Ez zen euskarazko lanposturik ezarri eta merezimendu moduan ere ez zen kontuan hartu.
- Teknikarien lanpostuetan (arloan ekonomikoa) aritzeko bi zerrenda hautapoben bidez osatzeko deialdiak (aldi baterako kontratazioetarako eta bestea prestakuntza zerbitzu berezietan aritzeko) (NAO 2021-10-27). Ez zen euskararen ezagutzarik ezartzen.
- Koordinazioko operadore laguntzaileen lanpostuetan aritzeko izangaien bi zerrenda osatzeko deialdia (2021-12-14).

Bestelako datuek ere argi uzten dute zenbateraino

“Lanpostuei ezartzen zaizkien hizkuntza profilek euskaraz zerbitzua jaso edo euskaraz eskaintza izatea baldintzatu dezakete”

baldintzatu dezakeen euskarazko zerbitzuak jaso edo euskarazko eskaintza izatea, lanpostuei ezartzen zaizkien hizkuntza profilek.

Adibidez, 2021eko martxoaren 2an Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Plantilla organikoa argitaratu zen. Horren arabera, 563 lanpostu ditu NUPEk, horietatik 33 dira euskarazko profila duten lanpostuak (%5,86a). Datu bezala, ingelesezko profila duten lanpostuak 18 dira (%3,20).

Hezkuntzatik harago, Nafarroako Departamentu gehienetan, are murriztagoa da euskarazko profila duten lanpostuen zenbatekoa: Ekonomia eta Ogasun Departamentuan adibidez, egungo plantilla organikoaren arabera, 518 lanpostu daude eta horietatik 12 dira lanpostu elebidunak (%2,32). Kontuan izan behar da, 12 lanpostu horiek ez daudela departamentu horretako sail guztietan banatuta eta beraz, sail batzuetan ez dago

lanpostu elebidunik (adibidez, Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusia) eta beste batzuetan euskarazko lanpostu bakarra dago (Nafarroako Estatistika Institutuan).

Bestalde, Nafarroako Udalek eskaintzen dituzten zerbitzuetan hizkuntza-eskubideen bermeak berebiziko garrantzia du herritarrek beraien egunerokotasunean euskara erabili ahal izateko. Udalei dagokie herritarren eskubideak bermatzeko hizkuntza-politika egoki bat diseinatu eta neurriak martxan jarri eta bermatzen direla ziurtatzea eta nola ez, neurri horien artean lanpostu elebidunak sortu, merezimenduen artean euskarari pisua eman edo azpikontratatzeko diren zerbitzuetan hizkuntza betebeharrak ezartzea, hizkuntza-politika horren barruan kokatzen dira.

Hala baina, Nafarroan udalek dituzten eskumen eta erabakien muiaren kontra egiten da hizkuntza-eskubideak bermatu edo euskara sustatzeko erabaki eta neurri ezberdinak epaitegietara eramanez. Neurri horien balio-gabetzea batik bat eremu mistoko udaletan ematen da, Euskararen Legearen muga eta araudi ezberdinek eremu honetan duten ziurgabetasun eta berme faltaren ondorioz.

Aurreko urteetan ere hainbat kasu izan ziren arren, 2021ean besteak beste, ondorengo epaiak kaleratu ziren:

**Lizarrako Udala, 2021.**

Derrigortasunik ez zuten lanpostu guztietako merezimenduen atala balio-gabetu zen, 216/2019 epaia aipatzen zen.

**Atarrabiako Udala, 2021.**

Giza baliabideen zuzendariaren eta, sukaldari lanpostuen derrigortasuna balio-gabetzea. Garbiketa, sukaldari-laguntzaile, haur eskolako garbiketara, zerbitzu anitzetako ofiziala eta langilea, kale-garbiketa

tako gidaria eta kale-garbitzailearen lanpostuetako merezimenduetan euskararen balio-gabetzea.

**Zizur Nagusiko Udala, 2021.**

Idazkari, gazteriako teknikaria eta peoien lanpostuetan euskararen nahitaezkotasunaren balio-gabetzea.

**Berriozar, 2021.**

Udal kiroldegiko gestiorako baldintzen balio-gabetzea, euskarazko zerbitzua emango zela ezartzeagatik.

## IPAR EUSKAL HERRIA

Ipar Euskal Herriari dagokionez, tokiko administrazioetako lanpostuetan ez dago hizkuntza eskakizunik ez kontratazioetan hizkuntza irizpiderik, hau da, lanpostuetara aurkezteko ez dago euskarazko derrigortasunik kasu bakan batzuetan izan ezik ( euskara teknikaria, haur eskoletan dispositibo berezia (LEHA), haurtzainak...). Gainerako lanpostuetarako, hautagaiei euskara jakitea balioztatzen ahal zaie, hau da, konpetentzia berak dituen beste hautagai baten aintzinean euskara dakiena balioztatu daiteke, baina ezin daiteke ziurtatu lanpostu horretan euskalduna egongo denik. Konpetentzia berak izanik ere, euskalduna ez dena kontratatu dezake udalak, izan lehentasuna duelako (funtzionaria...) edo bestelako gaitasun batzuen arabera hautatu delako.

Gaur egun, hautagaien artean konpetentzia berberak dituzten kasuetarako, euskalduna den hautagaia hautatzea eragile sozialen eskaera bat da eta baita Euskararen Erakunde Publikoaren gomendio bat ere. Kasu urri batzuetan udal batzuek betetzen dute haien borondatearen arabera.

Horrenbestez, nahiz eta herriko etxeak hizkuntza politika bat garatu eta herritarrei euskarazko zerbitzua

“ Nahiz eta herriko etxeek hizkuntza politika bat garatu eta herritarrei euskarazko zerbitzua eskaini nahi izan, lege ezin dute jendaurreko lanpostuetan euskararen ezagutza exigentzia gisa ezarri ”

eskaini nahi izan, ezin du jendaurreko lanpostuetan euskararen ezagutza exigentzia gisa ezarri. Ondorioz, euskarazko zerbitzua eskaini nahi bada, lanpostu horietan diren langileak euskalduntze prozeduretan ezarri behar dira (beti ere langilea prest bada).

Herriko etxeak ez diren administrazioetako lanpostuetan (departamentala, erregio administrazioa edo estatukoan), orokorrean herriko etxeen dauden irizpide berberak daude. Hala ere, toki administrazioetan, auzapezak kontrataziorako hautu ahalmena duenez, bere borondatearen arabera joka dezake.

Bestalde, 2017an Euskal Elkargoak hizkuntza-politika-rako neurriak adostu zituenetik (lehenagotik ere EEP-ren bidez herriko etxeek hizkuntza politikak martxan jarri zituzten arren), bultzada jaso du euskarak toki-ad-

ministrazioan. Elkargoak hartutako konpromisoek bere eragina izan dute udaletan eta borondatea adierazteaz gain, urrats ezberdinak eman dira bai euskarazko arretan zein langileen formakuntzan edo hizkuntza paisaian.

Gizartean euskara lortzen ari den aldeketasun handiak nolabaiteko eragina ere izan du eta eragile politikoak herri nahiarri erantzun bat eman beharrean izan dira, horren ondorioz, toki administrazio batzuetan neurri sorta handiak adostu dira. Herriko etxeek hartu dituzten konpromisoen artean nabarmentzekoa da tokiko euro-gutuna izenpetzearena. Halere, baliabide gehiago behar ditu hizkuntza-politikak oro har eta bereziki atzerapausorik ahalbidetuko ez duten urrats sendoak, izan kontratazioetan euskaldunen presentzia indartuz bai eta administrazioen arteko euskarazko harremanetan aitzina pausoak emanez zein bereziki estatusaren aldetik euskarari balio juridikoa emanez.

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOIA

Euskal autonomia Erkidegoetako zerbitzu publikoetan (Eusko Jaurlaritzaren menpekoak zein toki administrazioak) herritarren hizkuntza-eskubideek lege babes handiagoa izan arren, ez da eremu guztietan berdinduz bermatzen eta ezartzen diren neurriak, batez ere lanpostuei begirakoak, “errealitate soziolinguistikoaren” arabera izaten dira, hau da, herritarren eskubideen bermearekiko neurriak izan beharrean, askotan eremu zehatz batean dagoen hitzun kopuruaren arabera neurriak izaten dira. Ondorioz, zerbitzu publikoetako lanpostu askok hizkuntza eskakizuna derrigortasun data ezarri gabe dute (euskararen ezagutza egiaztatu gabe duten pertsonak eman dezakete zerbitzua lanpostu horietan).

### 45- 2021 dosierra

“Eusko Legebiltzarrak instalazioen kudeaketa teknikari lanpostu bat aldi baterako eta bitarteko gisa betetzeko lan eskaintza egin du. 2. Hizkuntz eskakizuna du eta derrigorrezko data bost urte barru. Hogeitabat garren mendean halakoak egitea ez zait bidezkoa iruditzen...”

Lanpostuetan euskarazko eskakizunak nahitaezkoak ez izateak, herritarrek jasaten dituzten hizkuntza-eskubide urraketetan eragiten du. Behatokian urtero jasotako kekek erakusten duten bezala, hainbat kasutan herritarrek zerbitzua euskaraz eskatzeagatik albo kalte-ondorioak pairatzen dituzte.

### 530-2021 dosierra

“17:30ean Bilboko Zabalburuko ertzain-etxera joan nintzen salaketa bat jartzera. Salaketa euskaraz egitea eskatu nuen eta esan zidaten momentu horretan euskaraz artatuko ninduen inor ez zegoela eta itxoin beharko nuela. Erdaraz egin nahi izatera berehala egiteko aukera izango nuela eta, gartzelania badakidanez, zertarako itxaron? iradoki zidaten. Nik ezetz, itxarongo nuela. Ordu eta laurden pasatxo itxaron ondoren, salaketa euskaraz egitea ahalbidetuko zidan agente bat azaldu zen. Honek “hace mucho que no hablo euskara pero lo intentaremos” (denbora asko da ez dudala euskaraz hitz egiten baina, tira, saiatuko gara) esan zidan. Salaketa egin nuenerako 18:45 ziren. Eta agente honen euskara maila dela eta, zalantzak ditut nik esandakoa zuzen jaso ote zen”.

Osakidetza bezalako erakunde publiko batean ere, hainbat profesional ez dira gai euskarazko zerbitzua bermatzeko eta honek zerbitzua baldintzatzen jarraitzen du, 2021. urtean ere, pandemiagatik izandako

gorabeherek hizkuntza-eskubideen bermean ere eragina izan dutelarik. Izandako aldaketak, hizkuntza eskakizun gabeko aldi-baterako kontratazio kopurua igotzeak etab. herritarren zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubidea are gehiago baldintzatu dute. Ondorioz, hizkuntza-eskubideak ez ezik, herritarren osasunerako eskubidean ere kalteak eragiten ditu hamarkadetan hizkuntza-eskubideen bermerako erabaki eta aurrerapauso irmoagoak ez hartzeak.

Orokorrean, administrazio publikoko aldi-baterakotasun tasa altuek, zerbitzuak euskaraz eskaintzen direla bermatzeko bestelako neurriak ere behar dituzte.

### 197-2021 dosierra

“Eusko Jaurlaritzaren Justizia sailak hizkuntza eskakizuna duten plazak baldintza hori betetzen ez duten langileekin betetzen ditu. Justizia sailak errefortzuzko izendapenak egiten jarraitu du eta hizkuntz eskakizuna duten lanpostuak bete gabe utzi, nahiz eta lan-poltsan lanpostu horiek betetzeko baldintzak betetzen dituzten langileak izan”.

### 568-2021 dosierra

“Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, askotan eta lanpostu anitzetan, ez dira hizkuntzekiko jarraibideak betetzen. Orain udako kontratazioak datoz eta administrazio honekin euskaraz komunikatzeko eskubidea urratu egingo da kontratatzen diren pertsonak bi hizkuntza ofizialetan aritzeko gaitasunik ez badute. Berezi garrantzitsuak iruditzen zaizkigu harreagarile eta, orokorrean, publikoari arreta zuzena eskaintzen diotenak. Kezkatuta ikusten dugu urtero bi hizkuntz ofizialetan gai ez diren langileak aukeratzen direla, hizkuntz eskakizunari muzin eginez. Behin-behineko kontratazio zerrenda



batean pertsona bakarra eta hizkuntz profilik gabekoa dago eta ondorengoan beste bakar bat; hor bukatzen da dena, beraz, ordezkapen guztiak nekez beteko dira horiekin. Herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak, (bi hizkuntza ofizial menperatzen dituzten langileak) har ditzala eskatzen diogu zuzendaritzari, bereziki publikoari arreta zuzena eskaintzen diotenak” :

Ertzaintza eta Udaltzaingoen lan-politsetako deialdi bateratuen kasua, adibide argia izan zen aldi baterako kontratazioetan hizkuntza eskakizunak ezartzeak duen garrantzia ikusteko. Izan ere, oporrak zein bestelako gorabeherengatik agenteak kontratatu behar ziren garaietan, udal batzuek lan-poltsa hauetara jotzen zuten eta horietan euskarazko gaitasunik ez zuten agenteak soilik geratzen ziren unean, hainbat udalek agente horiek kontratatzeke erabakia hartu zuten. Ondorioz, udal ezberdinetan herritarrei arreta eskaintzen zeuden hainbat agentek ez zuten euskaraz hitz egin edo euskara ulertu ere egiteko gaitasunik. Azkenean, 2021eko abuztuan iragarritako lan-poltsen deialdian derrigorrezko B2 mailako euskararen ezagutza ezartzea erabaki zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko udaletako zerbitzuei dagokienean, tokiko administrazioetan ere lanpostu publikoekiko herritarren eskubideak bermatuko dituzten hizkuntza-politikak aurrera eramatea, zerbitzu horien kalitatearen eta herritarrekiko arretaren parte da. Hala ere, udal batzuetan oraindik euskarazko zerbitzuak uneoro eta sail guztietan bermatzeko ez dira behar bezalako mekanismoak ezartzen eta lan-deialdi berrietan ere hainbat lanpostu derrigortasun data iraungi gabe ateratzen dira, beraz, euskaraz zerbitzuak eman ahal izateko ziurtagiririk ez zuten hainbat hautagai sartu ziren 2021ean ere.

Bestalde, 2021ean EAEko hizkuntza-politika kaltetu dezaketen hainbat erabaki hartu dira epaitegietan eta badirudike, aurrerantzean ere epaitegiek, lanpostu publikoekiko zein administrazio orokor eta toki-administrazioetan herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko hartzen diren bestelako neurriak baldintzatzea jo dezaketela.

2021eko irailean EAEko Auzitegi Nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen legea Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren esku uztea erabaki zuen. Horrela, udaletan euskararen erabilera baldintzatu dezake Auzitegi Konstituzionalak Espainiako Konstituzioaren kontrakoa dela esanez (gaztelania ezagutzeko derrigortasuna ezartzen duen artikulua eta berdintasunari buruzkoa). Horrek udalen egunerokotasunean zein bertako langileengan eragina izan dezake.

2021eko maiatzean, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Irungo Udaltzaingo zerbitzurako 12 lanposturi ezarritako hizkuntza eskakizunak bertan behera uzteko epaia argitaratu zuen, derrigorrezko hizkuntza eskakizunaren aurkako helegitea jaso ondoren, euskara ez dakitene-kiko “diskriminatzailea” dela argudiatuta. Auzitegi honen arabera, ez da beharrezkoa langile guztiei derrigortasuna ezartzea, baina Hizkuntz Eskubideen Behatokian jasotzen diren urraketek, argi erakusten dute langile batek euskararen ezagutza egokia ez izateak, zerbitzu osoa baldintzatu dezakeela, are gehiago udaltzaingoen kasuan bezala, egunero herritarrekin harremanak dituzten lanpostuetan.

Hurrengo urteetan auzi hauek zein bestelakoek herritarren hizkuntza-eskubideen bermean eragin ditzaketen urraketak gertutik aztertu beharko dira, bai eta auzi hauek bestelako administrazio zein EAEko lurralde osoan izan dezaketen eragina.

“ Zerbitzu publikoetako lanpostu askok hizkuntza eskakizuna derrigortasun data ezarri gabe dute ”



01

# Estatuetakoa administrazioak

Herritarrak kontziente dira Espainiar eta Frantziar Estatueta administrazioak ez daudela gaituak zerbitzuak euskaraz eskaintzeko. Izan ere, herritar askok Estatueta Administrazioetara zuzenean erdaraz jotzen dute. Lege eskubide gehiago izan ditzaketen kasuetan ere, administrazio hauetatik euskal hiztunekiko begirunea ez da jorratzen eta beraz, webgune edo bestelako euskarrietan eduki gutxi batzuk euskaratzeaz gaindi, ez da neurri koitunturalik hartzen.

## FRANTZIAR ESTATUA

Frantziar Estatuak ere, ez du euskal hiztunak kontuan hartzeko neurririk ezartzen, herritarrei helarazten dizkien agiriak, mezuak, emailak, gutunak... dena frantses hutsean helarazten du eta herritarrak zerbait euskaraz helarazten badu administrazio hauetara, frantses itzulpena egin behar duela adierazten zaio.

Frantziako Estatuaren zerbitzu batzuetan euskaraz idatzitako helbideak ere itzultzeko eskatzen dizkiete herritarrei.

### 1307-2021 dosierra

“Geroz eta arazo gehiago sortzen digutegure helbidea erderara itzultzen ez badiegu.”

2021eko apirilean, Frantziako Asanblea Nazionalen “Eskualde Hizkuntzen Ondarea Babestari eta Sustatzeari Buruzko Legea” (“Molac legea” bezala ezagutua) onartu zen. Lege honek jasotzen zuenaren arabera, murgiltze ereduaren zabalpenaz gaindi (hezkuntzako atalean landuko dugu), seinaleztapen elebiduna ahalbidetuko zen eta zeinu diakritikoak dituzten izenak onartzea ere jasotzen zuen (izen deiturak idazterako orduan Ñ hizkia baliozkotzat hartzea).



Paul Molac Frantziako Asanblada Nazionalen legea eztabaidatzen 2021eko apirilean.

Hala ere, Konstituzio Kontseilura errekurritu zen legea. Beraz, honen arabera, “Konstituzioaren 2. artikuluan, frantsesaren erabilera zuzenbide publikoko pertsona juridikoei eta zuzenbide pribatuko pertsonari ezartzen zaie, zerbitzu publikoko eginkizunen bat gauzatzean. Partikularrak ezin dira, administrazio eta zerbitzu publikoekiko harremanetan, frantsesa ez den beste hizkuntza erabiltzeko eskubideaz baliatu, ezta halako erabilerara behartu ere”, beraz, zeinu diakritikoen erabilera ezingo da gauzatu, adibidez, pertsona izenak erregistratzerakoan eta administrazioan balioa izango duen hizkuntza frantsesa izango da. Seinaleztapen elebidunaren erabilera onartu du Konstituzio Kontseiluak baina ez da nahitaezkoa izango, borondatezkoa baizik.

Beraz, Frantziako Konstituzioak herritarrak administrazioarekin euskara erabili ahal izateko muga nagusia

izaten jarraitzen du “Molac Legeak” aldaketarako esperantzak sortu dituen arren.


## ESPAINIAR ESTATUA

Aurrez aurreko arretan izaten diren ohiko urraketez gaindi, bide telematikoak gero eta indar handiagoa hartzen ari dira. Zentzu honetan, webgune eta orotariko baliabide telematikoetan euskarazko testu traketsak agertzen dira eta gehienetan euskarazko eduki gutxiago aurkitzen dira (kasu askotan euskarazko nabigatzailea hautatuta izenburuak bakarrik agertzen dira euskaraz). APP zein bestelako Estatueta baliabide berriak frantses, ingeles edo gaztelaniaz sortzen dituzte baina ez da izaten euskarazko aukerarik.

“ Herritar askok Estatueta Administrazioetara zuzenean erdaraz jotzen dute, kontziente baitira ez daudela gaituak zerbitzuak euskaraz eskaintzeko ”

### 1274-2021 dosierra

“AENaren appa gaztelaniaz edo ingelesez erabili daiteke; ez, ostera, neure hizkuntzan. Badirudi ez naizela hemengo herritarra. Badirudi neure hizkuntza ez dela ofiziala.”



AENaren mugikorretarako aplikazioa 2021ean.

### 89-2021 dosierra

“Espainiako Poliziak berriztatu ei du webgunea, bai eta aurkeztu ere, ondoko estekako albistean irakurri dudanez. Bada, euskarazko testuak Google Translatekin egin dituztela dirudi...”

Espainiar Estatu-ko administrazioetako lan-deialdietan orohar ez da euskara kontuan hartzen, baina 2021ean lehen aldiz euskara puntuagarria izan zen adibidez Correos-en. Hala ere, hori ez da nahikoa herritarrei zerbitzuak euskaraz eskaintzen direla bermatzeko eta neurri irmoagoak behar dira batez ere herritarrekin eguneroko harremana duten Estatu-ko administrazio ezberdinetan.

### 1144-2021 dosierra

“Eskari bat egin nuen eta etxeko helbidea euskaraz jarrita zegoen. Correos Express-eko Gasteizko langileak oso era txarrean deitu ninduen esanez *“yo euskera ni puta idea, yo hablo en cristiano, si quieres que te mande el paquete dame la dirección en español”*.”

### 1179-2021 dosierra

“Renfe Operadora enpresa publikoak Bilboko Aldirien Segurtasun eta Autobabese-ko lurralde ordezkaria lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua abian jarri du. Lanpostua Bilbon badago ere, aldirikoen Bilboko gunea euskara ofiziala den EAEn kokatuta badago ere eta aldiriko zerbitzu horien erabiltzaile franko euskalduna bada ere, Renfek ez du euskara ezta meritu gisa baloratuko. Ingeleseko B2 edo altuagoa den maila, ordea, baloratuko du Renfek.”



“**Herritarrak gaztelania erabiltzera derrigortzen dituzte Espainiar Estatu-ko inkesta ofizialetan**”

Espainiar Estatu-ko inkesta ofizialetan ez zaie herritarrei hizkuntza hautatzeko aukerarik ematen. Herritarrek inkesta hauei erantzuteko betebeharra duten heinean, gaztelania erabiltzera derrigortuak daude.

### 1195-2021

“CISetik deitu naute azaroaren 25ean arratsalde. 15-20 minutuko inkesta zela esan didate. Euskaraz egitea eskatu dut baina erantzun dit ez dituztela euskaraz ez katalanez egiten. Inkesta publiko guztiak bertoko hizkuntzan erantzuteko eskubidea izan beharko genuke!”

Estatu-ko Enplegu Zerbitzuarekiko herritarrek urtero kexa ezberdinak helarazten dituzte, batik bat tramiteak euskaraz presentzialki zein telematikoki egiteko ezintasunak dituztelako edo eta bulego ezberdinetako paisaia linguistikoarekiko. 2021ean ere erakunde honek ematen dituen ikastaroetan euskarazko eskaintzarik ez zegoela salatzen zuten herritarrek eta euskarazko arreta presentzialarekiko ere berme eza nabarmentzen zuten.

### 298-2021 dosierra

“SEPEren [hppt://sepe.es/HomeSepe/eu/Personas.html](http://sepe.es/HomeSepe/eu/Personas.html) helbidean “hitzordua” aukeraren gainean sakatuz gero ezin da horrelakorik eskatu, nahitaez webgunearen gaztelaniazko bertsioaren bidez egin behar da.”

Estatuko administrazioen bulego batzuetan euskarazko arreta eskaintzen duten arren (normalean herritarrak berriaz adierazi behar du), baliabide gutxiago izaten dira zerbitzua euskaraz eman ahal izateko, beraz, herritarrek albo-kalte ondorioak jasan behar dituztela nabarmentzen dute.

### 707-2021 dosierra

“Gizarte Segurantzako ofizinetan, euskaraz artatua izatea eskatzeagatik, beste edozeinek baino denbora dezente gehiago itxaron behar izan dut. Dokumentu, tramite, hitzordua eskatzeko zerbitzuak ez daude euskaraz. Euskaraz prozesu guztietan, eroso eta trabarik gabe atenditua izatea exijitzen dut.”


Herritarrak erregistro ofizial ezberdinetara jo behar dutenean edo/eta notaritza zerbitzuak behar dituztenetan euskaraz tramiteak modu berdinean egin ahal izateko trabak daude oraindik orain.




Espainiako Gobernuaren webgunean euskara trakets, 2021ean.



RENFEko kartela.



Lan eta Gizarte Ekonomiaren Ministerioaren gutuna, gaztelaniaz eta SEPEren webgunean euskara trakets.





**02**

**Administrazio  
jarduera  
orokorrak**

Herritarrek EAE, Nafarroa zein Ipar Euskal Herriko administrazioetatik hainbat zerbitzu orokor eta zerbitzu horiekiko informazio anitza jasotzen dute.

Batetik, Departamentu ezberdinetan ematen den arretan (zuzenekoa, telefonikoa zein telematikoa), euskarazko arreta eskatu arren, herritar askok gaztelaniara pasatu behar izaten dute, bai sail horretan dauden langileek ez dutelako euskararen beharrezko ezagutzarik edo informazioa edo zerbitzua eman behar duenak euskaraz ez dakielako.

### 1035 dosierra

“Nafarroako Gobernuaren web orriaren txataren bidez euskaraz galdetu nuen gai baten inguruan, baina euskaraz zekienak ezin ninduen artatu momentu horretan [navarra@navarra.es](mailto:navarra@navarra.es) helbide elektronikora idazteko adierazi zidaten, gaztelaniaz adierazi ere. Alegia, alde batetik, gaztelaniaz idatzi izan banu unean bertan jasoko nukeen informazioa eta, bestetik, nik euskaraz idatzi arren momentu oro gaztelaniaz jaso nituen erantzunak.”

### 919 dosierra

“Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoa den Euskadiko Kirol Portua (EKP)-ren bulego zentralera deitu dut eta ezin izan dut elkarrizketa euskaraz egin, erantzun didan langileak ez baitu euskara maila gutxiengo batean ulertzen, ez hitz egiten. Gaztelarara aldatu behar izan dugu berak eskatuta.”

### 1143 dosierra

“Nafarroako Parlamentura deitu behar izan dut, herritarrentzako berariaz ezarritako telefonora 948 209 209. Ezin izan dut euskara erabili telefonoaren bestaldean zegoenak ez zekielako euskara (bere lankidea kanpoan omen zegoen). Protokoloko sailean ere ezin izan dut euskaraz egin, euskaraz dakien honen lankideak haurrak gaixo omen zituen.”

### 411-2021 dosierra

“Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuetako Telegintza Zerbitzu Publikora, 900851600 zenbakira, deitu nuen apirilaren 18an 12:00ak aldera. Telefonoa hartu zidan gaztelaniaz hitz egin zidan eta euskaraz artatuko ninduen norbait ba ote zegoen galdetuta, “si quieres en euskara tendrás que llamar más tarde” erantzun zidan lehor-lehor. Euskaldunok tratu eta eskubide berberak merezi ditugu.”

### 912 dosierra

“Hilabete daramat ZUZENEAN Eusko Jaurlaritzako herritarrendako arreta 012 telefonora deitzen. Grabazio batek erantzuten du “euskaraz nahi baduzu sakatu 1”... esanez. Hiru edo lau aldiz honakoa gertatu zait: euskara hautatzeko zenbakia sakatu eta itxaronaldi baten ondoren deia moztea, edo momentu horretan langile guztiak okupaturik daudela eta geroago deitzeko esatea. Azkenean, itxarroteaz nekatuta, arreta gaztelaniaz jasotzeko aukera sakatu eta berehala erantzun eta jaso dut arreta. Hiruzpalautan gertatu zait gauza bera.”



Zerbitzu telematikoa administrazioarekin harremanetan jarri, tramiteren bat aurrera eraman edo informazioa eskuratzeko herritarrek gero eta gehiago erabiltzen dituzte zerbitzu telematikoak. Hauek, herritarrei zein administrazioari berari, azkartasuna eta eraginkortasuna bermatu beharko liekete. Hala ere, bide hauetatik zerbitzuak euskaraz berdintasunean eta eguneratuta jaso ahal izatea, neketsua bihurtzen da herritarrentzat.

### 480-2021 dosierra

“Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren web orrira sartu naiz eta, euskaraz nabigatu arren, edukien zati handi bat gaztelaniaz dago.”



*Euskaraz nabigatuta ere, edukia gaztelaniaz, Eusko Jaurlaritzaren webgunean.*

### 145-2021 dosierra

“Euskotrenen geltokian, makinan euskaraz jarrita ere, txartelean dirua sartzerakoan pantailan españolez azaltzen da beti.”

### 265-2021

“Nafarroako Ogasunaren web orrialdean DENA gaztelaniaz dago eta inprimaki guztiak ere gaztelania hutsean daude web orrialdean bertan euskara hautatu arren.”

### 441-2021

“Osakidetzaren karpeta zer horretara lizenperen bitartez sartzeko orrialdean klikatu dut “Ez al duzu BakQ? Eska ezazu!” aukera. Bada, erdara hutsezko orrialdea zabaltzen da! Zergatik dira hain ohikoak (edo ohikoak baino zerago: sistematikoak) halako akatsak udalen, diputazioen, Jaurlearitzaren eta abarren webguneetan? Euskaldunok ezin dugu sekulan ganoraz euskaraz jardun?”

### 886-2021

“Euskal Administrazioaren Ahalaordeen Erregistroan ezin izan ditugu gure elkartearen ordezkariaren aholordeak euskaraz erregistratu, gaztelaniaz azaltzen dira eduki guztiak nahiz eta web orrian euskarazko bertsioa hautatua izan.”

Departamentu edo Sail ezberdinetatik helarazten dituzten mezuak edo herritar eta administrazio ezberdinen eskuetan jartzen dituzten inprimaki, txosten zein dokumentuak erdara hutsean jaso zituzten herritar eta erakunde ezberdinek 2021ean ere.

### 147 dosierra

“Oinarrizko osasun eskualde eta auzoetako COVID-19ari buruzko azalpen zehatzak ematen dituzten txostenak argitaratu dira. Nafarroako web orrialdean euskaraz nabigatu arren, txostenak gaztelaniaz agertzen dira. Osanbideako twitterretik ere horren berri euskaraz eman da baina txostenak gaztelania hutsean argitaratu dira.”

### 464 dosierra

“Eusko Jaurlearitzak Euskadi NEXT Programaren eguneraketa argitaratu du gaur. Dokumentu berria baina praktika zaharrak, gaztelaniaz baino ez baitu argitaratu.”

### 1277 dosierra

“Emaila bidali ziguten atzo Nafarroako Gobernuko protokolo ataletik, gaztelania hutsean, “*protocolo.gobierno-[denavarra@stela.pro](mailto:denavarra@stela.pro)*” helbidetik bidali ziguten. Nafarroako Gobernuak berak ez baditu herritarren eskubideak bermatzen, nork egingo du? “

The image shows a mobile application interface for 'Servicios Izenpe' (Izenpe Services). The top part displays a login form with fields for 'NOME' and 'PASADIZA', a 'Pasadiza aldatu ezazu!' button, and a 'JARRAITU' button. Below this is a 'SOLICITUD DE EMISIÓN O RENOVACIÓN DE CERTIFICADO' section, which explains that the process involves requesting or renewing a certificate. A 'BIENVENIDO' message follows, stating that users can request and renew certificates. At the bottom, there is a link to 'nuestra Web' for more information.

Below the application interface, there are two graphs showing the weekly incidence rate of COVID-19. The first graph is for 'Zona Básica de Salud Orcoyen' (Semana 6) and compares Orcoyen/Dorkien (blue line) and Navarra/Nafarroa (red line) from November 45 to February 6. The second graph shows the incidence rate in the Pamplona Comarca (green bars) and Navarra/Nafarroa (red bars) for age groups 0-14, 15-29, 30-44, 45-59, 60-75, and +75.

Nafarroako Gobernuaren nahiz Osakidetzaren webguneak.





Programa gaztelaniaz, Jaurlaritzak.

### 149 dosierra

“COVIDaren kontrako txertaketaren gaineko informazio eguneratua eta osoa nahi izanez gero, gaztelaniara jo behar. Nafarroako Gobernuak ez ditu herritar guztiak berdin tratatzen, bigarren mailako herritarrak egiten ditu euskaldunak.”

### 874 dosierra

“Nafarroako Landa Garapenerako eta Ingu-rumeneko departamentutik gutuna jaso dut etxean. Espainolez bakarrik dago. Nafarroa osoan elebidunez igorri beharko litzateke.”

bizigune@alokabide.eus <bizigune@alokabide.eus>

Estimado propietario:


En primer lugar, agradecerle el interés mostrado por el programa Bizigune.

A continuación le adjuntamos la SOLICITUD DE INCORPORACION DE VIVIENDA AL PROGRAMA BIZIGUNE y un enlace a nuestra página web donde puede encontrar documentación informativa del programa Bizigune, incluyendo un video.

[https://www.alokabide.euskadi.eus/aa10-resbusg/eu/contenidos/informacion/aa10\\_documentos/eu\\_def/Bizigune.html](https://www.alokabide.euskadi.eus/aa10-resbusg/eu/contenidos/informacion/aa10_documentos/eu_def/Bizigune.html) [https://www.alokabide.euskadi.eus/aa10-resbusg/es/contenidos/informacion/aa10\\_documentos/es\\_def/Bizigune.html](https://www.alokabide.euskadi.eus/aa10-resbusg/es/contenidos/informacion/aa10_documentos/es_def/Bizigune.html)

Para iniciar el proceso de admisión de viviendas al programa BIZIGUNE, en caso de estar interesado, le rogamos envíe vía email la solicitud de incorporación adjunta firmada junto con la documentación indicada en la misma. Una vez recibida, desde Alokabide comenzaremos las gestiones del proceso de admisión.

Iniciativas como la suya nos permiten satisfacer las necesidades de vivienda en alquiler social, por lo que le agradecemos nuevamente el interés mostrado. Quedamos a la espera de recibir su solicitud.



Alokabideren mezua eta El Correoko iragarkia, erdaraz; Nafarroako Gobernuaren kanpaina, euskaraz ez, beste hainbat hizkuntzatan.

### 755 dosierra

“Ohikoa da Alokabidek erdarazko mezuak helaraztea; euskaraz hitz egiteko aukera dago, baina, idatziak erdara hutsean bidaltzen dituzte.”

Iragarki edo kanpainen ere ez da beti euskararen presentzia bermatzen eta gogoratu behar dugu, gaztelaniazko prentsa izan arren, iragarkiek euskaraz ere egon beharko luketela.

### 1184 dosierra

“Gaurko el Correok “El Arte, la Mar y el V



Centenario de la Primera Vuelta al Mundo” delako zerbaiten (erakusketa?) iragarkia dakar, erdara hutsean.”

### 710 dosierra

“Nafarroako Gobernuak hainbat hizkuntzatan egindako karteletan zabaldu du Iruñean txertoaren gaineko informazioa. Euskarazkorik ez dut inon ikusi.”

### 695-2021

“Atzoko Deian Jaurlaritzaren Beti On zerbitzuak, erdara hutsean argitaratu zuen iragarkia.”

Administrazio publiko hauek jarduera ezberdinen babesletza aurrera eramaten dutenean ere ez da behar bezala bermatzen hizkuntza irizpideak errespetatzen direla (ez eta lege betebeharra dagoenean ere) eta azpikontratatzaren inkesta zein bestelako zerbitzuetan ere egoera beretsua ematen da.

### 1078 dosierra

“Hitzaldi, mahai-inguru eta proiektuen aurkezpenak antolatu ditu b-venturek inbertitzaile eta ekintzaile batzuekin. Eusko Jaurlaritzak ageri da kartelean laguntzaile, baina euskaraz hitz bakar bat ere ez.”

### 243 dosierra

“Betetzea derrigorrezkoa den inkesta bat bete dut eta zalantza batekin deitu dut EUSTATERa. Nire zalantza argitzeko pasa didaten pertsonak ez zekien euskaraz. Pertsona euskaldun bat eskatu dut eta pertsona euskaldunik ez zegoela esan dit. Elkarrizketa osoa gazteleraz egin behar izan dugu.”

Urtero bezala, kexa kopuru deigarria izaten dute Foru Aldundiek.

Webgune, inprimakiak:

### 158-2021 dosierra

“The Grand Winnes enpresak Errioxako ardoa bultzatzeko on line erosketaplataforma bat sortu du kontsumitzaileentzat. Enpresa honek Arabako Foru Aldundiaren dirua jaso du horretarako baina web orria ez dago euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez baino ez.”



Errioxako ardoa bultzatzeko Arabako Foru Aldundiaren dirua jaso duen webgunea ez dago euskaraz.

### 9-2021 dosierra

“Duela egun gutxi hasi naiz Bilboko Arte Ederretako Museoko Facebook orrialdea jarraitzen. Egunduetan konturatu naiz sarean eskegitzen duten informazio oro gaztelania hutsean dagoela (Berrian argitaratzen dituzten berriak izan ezik). Erakunde publikoa izanik, lotsagarria deritzot.”

Mezuak eta emailak:

### 549-2021 dosierra

“E-maila bidali dut Biscaytik-era, irudi batzuk erantsita. Bada, diputazioaren <seguridad@bizkaia.eus> erantzun automatikoa jaso dut erdara hutsean. Zergatik ez gaituzte euskaldunok kontuan hartzen? Bereizkeria da! Euskaldunok baditugu eskubideak. Lotsagarria da eredu behar luketen administrazioek 2021ean ere eskubideak urratzen segitzea.”

### 680-2021 dossierra

“Lurraldebus zerbitzuan eskaripeko autobusa eskatzen duzunean mezu bat bidaltzen dizute. 2020an kexa jarri nuen gaztelaniaz bakarrik bidaltzen zutelako eta geroago bi hizkuntzetan bidaltzen hasi ziren baina igandean berriro gaztelania hutsean bidaltzen hasi ziren.”

### 652-2021 dosierra

“Bizkaiko Foru Aldundiaren “Bizkaiko Foru Aldundiaren <noreply@bizkaia.org> helbidetik, emaila jaso dut, e-mail elebiduna edo: gaztelaniaz ondo idatzita dago eta sakatu beharreko esteka badabil; euskaraz, ostera, txarto idatzita eta esteka ez dabil.”

“Gaztelaniazko prentsa izan arren, iragarkiek euskaraz ere egon beharko lukete”

Foru Aldundietatik antolatutako jarduerak:

### 698 dosierra

“Nolatan izan daiteke gaztelaniaz Bizkaiko Foru Aldundiaren BEAZek antolatu duen eta umei zuzendutakoa den campus teknologikoa? Zoratu al gara? Bizkaiko ia ume guztiek euskaraz dakite.”

Aurreko urtean ere nabarmentzekoa izan zen Bizkaiko Foru Aldundiak zein Nafarroako Ogasunak errenta aitopenen inguruan jasotako kexen nondik norakoa. Arazoak baliabide telematikoa euskaraz erabiltzerakoan, gaztelaniaz jasotzen diren email eta mezuak, euskarazko webgunean akatsak, telefono arreta euskaraz jasotzeko arazoak, gaztelania hutsean helarazten diren inprimakiak...

### 1075-2021 dosierra


“Nafarroako Gobernuaren zerga ordainketa bide telematikotik egiteko, unean euskara hautatu arren, inprimakia gaztelaniaz igortzen du.”

### 325-2021 dosierra

“Nafarroako Gobernuaren Ogasun sailetik gutuna jaso dugu, zergatik elebkarrez? Web atarira abiatu eta euskarazko atala ez dago erabilgarri, antza. Euskaldunon eskubideak berriz ere urratuak?”

### 285-2021 dosierra

“Aurten be Bizkaiko errenta aitopenen euskarazko orrian sartu naz eta zirriborroa eskatzean erdarazkora bidaltzen nau. Mesedez gure eskubideak berme guztiekaz errespetatzea eskatzen dogu.”



Nafarroako zein Bizkaiko ogasun eta errenta aitopenen inguruko informazioa, gaztelania hutsean.

### 328-2021 dosierra

“Nafarroako Ogasuneko informazio gutuna gaztelania hutsez jaso dut. Internetez kontsultatu nahi izan eta euskarazko atala erabiltezin.”


### 287-2021 dosierra

“E-maila jaso dut erdara huts-hutsean Bizkaiko Foru Aldunditik. Prentsan irakurria nuen gaur hasiko zirela Errenta Aitorpe-

naren inguruko gutunak bidaltzen. Hortaz, horrekin zerikusia duelakoan nago. Errenta aitopena urtero, betitik, euskaraz aurkezten dut. Hortaz, Aldundiak niri bidalitako oro euskaraz egon behar da.”

### 345-2021 dosierra

“Nafarroako Ogasunaren webgunea ez dago euskaraz erabilgarri, gutuna ere gaztelania hutsean jaso dut, non eta “eremu-euskalduna” deitzen den horretan. Eskerrak!”



*Bizkaiko errenta-aitorpena gaztelania hutsean.*

*Errenta-aitorpenerako Nafarroako webguneko formularioa, gaztelania hutsean.*

### 735-2021 dosierra

“Nire atsekabe eta harridurararako, 2020ko errenta-aitorpena GAZTELERA hutsezkoa jaso nuen! Inork ez dit inoiz galdetu nire hizkuntza-aukerei buruz, baina azken hogeit urteetan BETI euskara hutsez bete dut nire aitorpena. Horrenbeste urte jendea aitorpena euskaraz egitera animatu eta bat-batean, aurreko urteetan euskaraz egiten genuen guztiok erdaldun bihurtu gaituzte.”

### 330-2021 dosierra

“Iruñeko Baluartan egon naiz errenta aitorpena egiten, atenditu nauen pertsonari eskatu diot arreta euskaraz jasotzea eta esan dit ez zekiela langile euskaldunik ba ote zegoen eta ezin zela mahaiz mahai pasa bazegoen jakiteko.”

### 320-2021 dosierra

“Errenta aitorpenaren gaineko kontsulta bat egiteko deitu dut Bizkaiko Foru Aldundira gaur. Euskaraz ez zekien telefonoa hartu duenak. Arreta euskaraz jaso nahi dudala adierazi diot eta esan dit berriro deitzeko. Berriro deitu dut eta azkenean ez dut lortu euskaraz jardutea.”

### 310-2021 dosierra

“Errenta aitorpena egiteko zalantza bat galdetzeko Nafarroako Ogasunak jarritako telefonora deitu dut. Makinak gaztelerez bakarrik hitz egiten zuen. Ez dut pertsona batekin hitz egitea lortu denak lanpetuta zeudelako, eta beraz, Internet bidezko formuliora jo dut. Hori ere gaztelerez baka-

rrik, eta mezua bidalita jaso dudan berrespen mezua baita ere.”

### 494-2021 dosierra

“Iruñean errenta aitorpena egiteko ez dago pabilioi osoan euskaraz hartuko nauen langile bakar bat ere ez. Horrek nire hizkuntza eskubideak urratzen ditu.”

### 323-2021 dosierra

“Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasunera deitu dut 2020ko errenta aitorpenerako informazio eske. Horretarako duten telefonora deitu dut. 8 minutu ostean, langile batek hartu du deia eta euskaraz hitz egiten nuela ohartzean, pixka bat itzaroteko eskatu dit (beste lankide batekin pasatzeko). Horren ondoren, beste 42 minutu egon naiz zain eta ez dut erantzunik jaso. 13:00ean, erantzunik jaso gabe, telefonoa eskegi dut.”



03

Osasungintza

Aurreko urtean bezala, 2021. urtean ere osasungintzako urraketek garrantzia berezia izan dute herritarrentzat.

## OSASUNGINTZA PUBLIKOA

Sistemak gorabehera eta aldaketa asko izan zituen 2021ean ere eta horrek, aurreko urtean bezala, nabarmen azaleratzen ditu hizkuntzarekiko osasun sistema eta zerbitzu guztietan dauden gabeziak. Aldi baterako kontratazioetan, adibidez, hizkuntza eskakizunak malgutu egiten dira. Egun osasun sisteman dagoen aldi baterakotasun tasa kontuan hartuta, euskaraz artatzeko gai ez diren profesionalak kontratatzen jarraitzeak, eragin nabarmena du herritarrek jasotzen duten zerbitzuetan, diagnostikoan eta osasunean. Lanpostuetan euskararen derrigortasun tasetan ere aurrerapauso mantsoegiak ematen dira edo duela 10 urteko egoera berdinean aurkitzen gara, beraz, unitate edo espezialitate batzuetan euskaraz artatuko gaituen profesionala aurkitzeko zailtasunak izaten dira.

“**Herritarrek euskaraz artatuak izateko ahalegin berezia egin behar izan dute eta ez da uneoro bermatu herritarren hizkuntza hautua**”

Covid gaitzari lotutako eginbehar eta zerbitzuetan zein txertoari lotutakoetan, herritarrek euskaraz artatuak

izateko ahalegin berezia egin behar izan dute eta ez da uneoro bermatu herritarren hizkuntza hautua. Aurrez aurreko asistentzia gutxitu eta telefono bidezko osasun zerbitzuak edo zerbitzu telematikoak ugaritu diren heinean, herritarrek zerbitzu horietan emandako hainbat urraketa ezberdin detektatu dituzte.

### 875-2021 dosierra

“Herritarrek osasun karpetara jotzean, oraindik euskarazko hautua egitean, gaztelaniazko hitzak zein dokumentuak ager daitezke.”

### 122-2021 dosierra

“Osakidetzaren Ordiziako anbulatorioetik deitu digute etxera sendagile ordezoako gaztelaniaz zuzenduaz. Guk galdetu ea euskaraz badakien... eta sendagileak erantzun: “Yo hablo español”. Euskaldunen hizkuntza eskubideak nola bermatzen dira Osakidetzan?”

### 25-2021 dosierra

“Goizean PCR proba egitera joan naiz anbulategira. Orri bat eman didate astelehenean ospitalean entregatzeko interbentzioa egin aurretik. GAZTELERA HUTSEAN zegoen orria eta 20 minutu baino gehiago kalean zain egon ondoren ez dira gai izan orria euskaraz emateko. Beste orri bat eman didate gauza bera dela esanez. Ez dute antzik ere!...”

Urte honetan, txertaketa prozesua egunero irekita egon da adin tarte ezberdinetarako, horrek herritarrek osasungintzako profesionalekin kontaktu gehiago edukitzea

ekarri du. Gainera, sistema publikotik mutualitateetara ere bideratu da txertaketa prozesua eta mutualitate hauekin ez da beharrezko lanak egin txertaketa prozesuko zerbitzuak (arreta, profesionalak, jarraibideak, dokumentuak...) euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzeko. Osasun sistemak azpikontratatuak dituen beste hainbat zerbitzutan ere ez da behar bezala bermatzen euskarazko arreta eskainiko dela.


### 48-2021 dosierra

“Urtarrilaren 5ean aztarnariak deitu zigun. Ez nuen informazioa euskaraz jaso eta ezin izan nuen euskaraz mintzatu. Ondoko egunetan 2. PCRa egiteko hitzordua emateko bertze dei bat jasoko nuela azaldu zidan. Euskalduna izan zedin nahi nuela idatzita uzteko eskatu nion. Bada, alferrik. Hurrengo egunean deitu zidan aztarnariarekin ere ezin izan nuen euskaraz mintzatu.”

### 198-2021 dosierra

“Mutualiak COVID19aren aurkako txertoa jarri baino lehen inprimaki bat bete behar izan dugu eta gaztelaniaz baino ez da egon. Bestetik, bertako langile batzuek euskaraz egin digute baina beste batzuek ez.”


Osasun alorreko paisaia linguistikoari dagokionean ere, urraketak behin eta berriz errepikatu dira. Ospitale, osasun-etxe, PCR zein txertaketa guneeetan jarritako oharrrak, herritarrei banatutako jarraibideak, zentro askotan gaztelaniazkoak soilik izaten dituzte eskuragarri eta herritarren kexen ostean euskarazkoak atera arren, berritzen diren bakoitzean herritarrek eskatzen ibili behar dira.



Jarraibideak gaztelania hutsean.



Paisaia linguistikoari dagokionean ere, urraketak errepikatzen dira.



Oharra, gaztelania hutsean.

### 253-2021 dosierra

“...odola ateratzen eta lagainak eroaten joan naiz Durangoko osasun-etxera. Odola ateratzeko gelan arreta egiten ziharduen langileak “E” darama paparrean. Bada, neuri erdaraz egin dit, hasieratik “buenos días”ka, neure aurrekoari eta ostekoari, ostera, “egun on”, baina hori besterik ez. Gero erdara hutsera lerratzen da...”

Mediku espezialisten kasuan, espezialista euskaldunen beharra nabarmentzen dute herritarrek espezialitate ezberdinetan eta lurralde guztietan.

### 367-2021 dosierra

“Especialista dermatologoak euskaraz ez zekienez erdera egitera behartu nau, nire aukera euskara izan arren.”

Mediku espezialisten zenbait unitatetan lehentasuneko eta urgentea da herritarrei euskarazko zerbitzua bermatzea. Besteak beste osasun mentala, logopedia... baina baita haurrekin edo larrialdietan ematen diren zerbitzuetan ere. Izan ere, pediatria bezalako espezialitateetan, profesional euskaldunen hutsune nabarmena izaten da Euskal Herri osoko eremu

Osakidetzan, herritarrak hizkuntza hautua egiteko sistema dago, beraz herritarrak euskaraz dakien profesionala dela detektatzeko “E” ikurra ezarrita dute bereizgarri. Hala ere, ikur hau daramaten profesionalak askotan ez dute behar bezala bermatzen herritarrak euskaraz egoki jaso ahal izango duela osasun zerbitzua.

guztietan (baita euskaldunen kopurua handia den eta lehentasunezko unitate klasifikatzen dituzten eremuetan ere) eta horrek diagnostikoan eta txikienen osasunean eragin dezake bereziki.

### 1209-2021 dosierra

“Etxaniz Suhiltzailearen Osasun Mentaleko Zentroan ezin dut SEKULA ERE euskaraz berba egin. Ez psikiatrarekin ezta administrariarekin... Nola izan daiteke buru-osasunaren zentro batean euskaraz berba egitea ezinezkoa izatea? Buru-osasuna oso barrukoa da, euskaraz askoz hobeto moldatzen naiz erdaraz baino, baina esan didate Bilbo denez, ba...”

### 315-2021 dosierra

“Gaur, semeak buruan kolpe bat izan duela eta, pediatria larrialdietara joan behar izan du, eta bertan artatu duen pediatrik espainieraz baino ez zekien. Hori dela eta, egoera aztertzeke sendagileak egindako galderak eta argibideak semeak ez zituen ongi ulertzen, eta amak itzuli behar izan dizkio. Egoerak ondoeza eta urduritasuna sorrarazi dizkio umeari eta, jakina, hizkuntza eskubideak, baita egoki artatua izatekoa ere, urratu zaizkio.”

### 1099-2021 dosierra


“Alaba gaztelaniaz artatu zuten irailaren 24an Leioako osasun zentroan, pediatrian. Euskalduna da eta ez da gaztelaniaz moldatzen oraindik. Joaten garen ia guztietan gertatzen zaigu.”

Zerbitzuak jasotzen dituztenek ez ezik, zerbitzuak eskaintzen dituzten profesionalek ere, euskaraz lan egin ahal izateko neurri eraginkor eta baliabide falta salatzen dute. Horiez gandi, jasotzen duten formakuntza erdaraz izaten dela eta euskarazko aukerarik ia ez dutela aipatzen dute profesional ezberdinek.

### 1041-2021 dosierra

“Osakidetzak azkenaldian nire lanean beharrezko ditudan ezagutzak jasotzeko bi kurtso eskaini dizkit. Lan Osasunaren ingurukoa bat eta medikamentu arriskutsuen erabileraren ingurukoa bestea. Azken honetan nik eskatu gabe apuntatu ninduten. Lehena urtarrila inguruan izan zen eta euskaraz egin nahi nuela esan nienean, euskarazko kurtsoa irteten zenean esango zidatela erantzun zidaten. zain nago oraindik. Bigarrenean, kurtsoko foroaren bidez euskarazko bertsioa baldin badago euskaraz apuntatzeko eskatu nien eta oraindik erantzunaren zain nago. Nik eskatu gabe beraiek eskaini eta apuntatu izanak argi erakusten du lanerako ezinbestekoak direla. Onartezina iruditzen zait kurtso hauek euskaraz eta gazteleraz une berean ez eskaintzea.”

Osakidetzako Transfusio eta Giza-ehunen zentrora igorritako kexa ezberdinak izan ziren 2021ean. Odol-emaile diren herritarrek jasotzen dituzten mezu edo sms-ak zein bestelako informazioa (galdetegiak, elkarrizketak...) gaztelaniaz igortzen dela aipatzen zuten herritarrek eta gehienetan, zerbitzu hauetan aritzen diren profesionalekin euskara erabiltzea ezinezkoa egiten zaie. Izan ere, Osakidetzak berak igorritako



*Odol-emaileek jasotako arreta gaztelaniaz izaten da askotan.*

datuen arabera, Bizkaian adibidez emaileak hautatzeko elkarrizketaz arduratzen diren medikuen %38k soilik du euskarazko gaitasuna, beraz, nahiz eta txanda bakoitzean euskaraz dakien bat bermatzen saiatu, lan karga zein bestelako aldagaiak direla eta, neurri horrek ez du herritarren hizkuntza hautua behar bezala bermatzen.

### 173-2021 dosierra

“Osakidetzaren odol emaileen zerbitzuko medikuekin ezinezkoa da euskaraz jardutea. Azkenekoz orain dela hilabete bat Bilbon, Karmelo kalean. Elkarrizketa eta galdetegi luzea egiten dute eta, esan bezala, gaztelaniaz aritu behar izaten dut.”

Nafarroan, bularreko minbizia detektatzeko kanpainan euskal hiztunak ez zirela kontuan hartu salatzen zuten hainbat emakumek; hitzordurako mezua, gutunak, jarraibideak... Behatokitik bideratutakoek aldaketak eragin zituzten arren, hasiera batean gaztelania hutsean helarazi zitzaizen dena Nafarro osoko emakumeei.



**1159-2021**

“Mamografia egiteko gutuna eta jarraibideak gaztelania hutsean bidali dizkit etxera. Altsasun bizi naiz, euskara ofiziala den herrian. Deitoragarria benetan!”




*Bularreko minbizia detektatzeko Nafarroako kanpaina.*


Osakidetzan, 2021eko azaroan “Euskararen Erabilera Normalizatzeko III.plana”-ren zirriborroa aukeztu zen. Hizkuntz Eskubideen Behatokiak, Euskalgintzaren Kontseilua eta Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearekin batera, herritarren hizkuntza-eskubideen bermea ardatz, ekarpen eta aldaketa proposamen ezberdinak egin zizkion planari. Izan ere, azken urte hauetan emandako urraketek, II. Planeko zenbait helbururen ez betetzeek eta aurrerapauso berrien beharrak, hurrengo urteetarako bestelako erabaki eta erronkak planteatu behar ditu paziente eta erabiltzaileekiko harremanetan, lan hizkuntzan, kanpo-harremanetan zein erakundearen irudi eta komunikazioan.

“Profesionalek ere euskaraz lan egin ahal izateko neurri eraginkor eta baliabide falta salatzen dute”

Aurrera begira, Nafarroan Osasunbideak hizkuntza hautuarekiko zenbait konpromiso hartu dituen arren, herritarrak berariaz osasun etxeetara jo behar izaten du euskarazko harremana nahi duela eskatzera eta horrek, komunikazio idatzietarako hizkuntza aukeratzea baino ez dio ahalbidetzen, ez osasun arreta euskaraz jasotzea. Hala ere, komunikazioak euskaraz nahi dituztela adierazita duten herritarrei ere ez zaie Osasunbideako sistema osotik euskarazko mezuak jasoko dituztela bermatzen. Osasunbideako lanpostuen %95 baino gehiagotan, euskarazko zerbitzua eskaintzea ez da nahitaetzkoa eta beraz, horrek sistema osoa baldintzatzen du.



*Osasun profesionalerako harremanak, gaztelaniaz dira sarri.*



*Zerbitzu telematiakoetan euskarazko aukera falta da sarri.*

## OSASUNGINTZA PRIBATUA

Osasungintza pribatuan ere antzeko urraketak izan dira; hizkuntza paisaiarekiko urraketak, zuzeneko arreta zein arreta telefonikokoak, antolatzen diren hitzaldi zein bestelako formakuntzetan euskara kontuan ez hartzea eta osasun arreta euskaraz jaso ahal izateko, osasungintza pribatuan ere zailtasunak daudela azpimarratzen dute herritarrek. Agiri zein pazienteei ematen zaizkien hainbat dokumentu ere gaztelaniaz banatzen dituzte.

### 291-2021 dosierra

“Bilboko Quirónen prebentzio zerbitzueta-tik antigenu testa egiteko hitzordua eta informazio agiria jaso ditut, den-dena gaztelania hutsean. Kontuan izan behar da gainera zerbitzu hori EITB erakunde publikoak kontratatutakoa dela.”

### 801-2021 dosierra

“IMQ Prebentziotik gutun bat gaztelera hutsean jaso dugu, faktura baten ordainketari buruzko erreklamazioa eginez.”

### 534-2021 dosierra

“Hitzaldi interesgarria antolatu dute Azpeitian ekainaren 8rako familia eta buru osasunari buruz. Hitzaldia gaztelaniaz izango dela irakurri izan dut, horrelako gai bat tratatzeko garrantzitsua da bertoko hizkuntzan ere azalpenak jasotzea. Are gehiago erakunde publikoek babestutako ekimena denean.”



Euskarazko itzulpen traketsa agerian uzten duen informazio panela.

### 913-2021 dosierra

“Asoc. española contra el cancer elkartetik hots egiten zidaten telefonoz esan eta nik euskaraz erantzun ari nintzenez, zera galdetu zidaten:

-No sabes español?

+Bai, zuk euskaraz?

Eta halaxe erantzun zidaten:

- Pues ya puedes aprender.”

### 1200-2021 dosierra

“Quironsaludek (Policlinika Gipuzkoa) gaztelania hutsean luzatu dit faktura.”

“ Arreta euskaraz jaso ahal izateko zailtasunak daude osasungintza pribatuan ere, herritarren arabera ”

FACTURA	PG-FV21-	FECHA	17/11/2021	PÁGINA	1/1		
<p><b>Quirónsalud</b> La salud persona a persona</p> <p>DNE: ..... Entidad: .....</p> <p>Dr. Fiscal: 2000, DONOSTIA-SAN SEBASTIAN, Gipuzkoa, España      Dr. Emisor: 2000, DONOSTIA-SAN SEBASTIAN, Gipuzkoa, España</p> <p>MANEJO: ..... Nº Cont.: .....</p> <p>Policlínica GIPUZKOA SA Policlínica Gipuzkoa PASAD. Miramon, 174 70014, DONOSTIA-SAN SEBASTIAN Gipuzkoa, España CIF A20334547 IBAN: ES29 0200 3484 33 0000638271 BIC: QNFY33 *****</p> <p>MANEJO: .....</p> <p>AutORIZACIÓN: ..... DNE: ..... F. Neg.: ..... 'MHC: ..... Episodio: .....</p> <p>Póliza/Tarj.: .....</p> <p>México: ..... F. Ingr.: ..... F. Altas: .....</p> <p>Servicio: F. ....</p>							
CODIGO	Cant	FECHA	CONCEPTO	P.V.P.	Imp. Bruto	Imp. Desc.	Imp. Neto
1110116001	1,00	29/09/21	CONSULTAS Y VISITAS				
			CONSULTA CIRUJIA GENERAL Y DIGESTIVA				
<b>Total CONSULTAS EXTERNAS:</b>							

Quironsalud-eko faktura gaztelania hutsean.



**04**

**Segurtasuna eta  
Herrizaingoa**

Atal honetan, Ertzaintza, Foruzaingo, zein Udaltzaingoetak urraketak aztertzen dira.

Foruzaingoari dagokionean, Euskararen Legeak ezarritako mugak direla eta, euskarazko profila duten lanpostuak ezartzen dituzten eta beraz, Legeak ezarritako eremu euskaldunean ez ezik, Nafarroako beste eremuetan zerbitzuak ematen dituzten agente gehienek ez dute herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko gaitasunik. Eremu euskaldunean bertan ere ez da behar bezala bermatzen herritarrek euskaraz aritzeko duten eskubidea.

### 311-2021

“Nafarroa Garaiko eremu euskalduneko gure herria itxita dago COVIDa dela eta. Gurera lanera beste herri batetik etorri behar duen langilea gelditu du Foruzaingoak. Herrian sartu ahal izateko euskara hutsean zeraman agiria erakutsi dio eta gaztelaniaz egon behar duela esan dio postuan zegoen foruzainak. Pasatzen utzi dio baina adierazi dio gaztelaniaz ez badu aurkezten hurrengo egunean ez diola sarten utziko. Agiria euskara hutsean aurkezteko eskubidea du?”

Foruzaingotik helarazten diren mezu, jakinarazpen, prozedura... gehienak gaztelaniaz bideratzen dira eta herritarrek berariaz euskarazkoak eskatzen ibili behar du. Hala ere, herritarrek gehienetan gaztelania erabiltzen dute Foruzaingoaren zerbitzuak behar dituztenean, agenteekin euskaraz harremanak izateak albo-kalteak sortzen dizkietelako edo Nafarroako eremuaren arabera, ez dituztelako beraien eskubideak behar bezala bermatuak. Foruzaingoaren sare sozialetan gaztelania erabiltzen da eta arreta telefonikoa zein presentziala euskaraz jasotzeko zailtasunak izaten dira.

Ertzaintzari dagokionean, 2021 ean ere herritarrek hainbat kexa helarazi zituzten bai arreta telefoniko zein presentzialarekikoak. Euskarazko arreta eskatzeagatik eragozpenak sortzea ere egotzi izan zaie herritarrei. Izan ere, zenbait herritarrek euskarazko arreta eskatzeagatik albo-kalte ondorioak jasan behar dituztela aipatzen dute eta Ertzaintzatik helarazten diren hainbat erantzunetan, bertsio ezberdinak daudela adierazten da herritarrek bere hizkuntza eskubideak urratu zaizkiola azaltzen duenean. Beste hainbatetan, herritarrek aipatzen duena ezin dela ziurtatu argudiatzen da.

### 309-2021 dosierra

“Gaur goizean Deustuko eta Zabalburuko ertzain etxeetara deitu dut duda batengatik. Bi lekuetan ez dute euskaraz jakin.”

Agenteen aldetik erantzun txarrak jaso dituztela aipatzen duten herritarren kasuak ere izan dira; nortasun agirian “España” jartzen duela edo Espainiako hizkuntza ofiziala espainola dela, adibidez. Honi lotuta, herritar batek Donostiako autobus publiko batetik zabalduetako bideoak oihartzun handia izan zuen sare sozialetan.

### 1027-2021 dosierra

“Urriaren 12an, Donostian, Antiguotik Boulevard-era doan autobusa hartu genuen, 14:50 aldera. Ertzain agenteek identifikatzeko eskatu ziguten autobus barruan, euskaraz artatuak izan nahi genuela adierazi arren, gure nortasun agirian “España” jartzen zuela eta gaztelera egiteko betebeharra genuela erantzun ziguten.”

“**Herritarrek gehienetan gaztelania erabiltzen dute Foruzaingoaren zerbitzuak behar dituztenean, agenteekin euskaraz harremanak izateak albo-kalteak sortzen dizkietelako**”

### 70-2021 dosierra

“Donostiako Ertzain etxera deitu dut goizeko 9:00etan galdera bat egiteko eta artatu nauen pertsonak gaztelaniaz egiteko eskatu dit. Euskaraz hitz egiteko beste inor ba ote zegoen esan diodanean ea adarra jotzeko deitu dudana esan dit, eta bere hitzak erabilita “por favor estamos como estamos con esta pandemia y no me abrumes”. Erantzutea nahi banuen gaztelaniaz hitz egiteko eta bestela beste momentu batean deitzeko. Dena noski, oso tonu txarrean. Ente publiko bat zela eta elebiduna, berak beraz gaztelaniaz erantzuteko eskubide osoa zuela. Gehiago esateko aukerarik eman gabe, telefonoa eskegi du.”

Ertzaintzako protokoloen arabera, herritar batek euskarazko zerbitzua eskatzen badu eta une horretan dagoen agentea euskaraz artatzeko gai ez bada, euskaraz egiteko gai izango den beste agente bat deitu behar da. Hala ere, praktikan neurri horrek hainbat muga izaten ditu eta ondorioz, nekez eskaini dakioko herritarrari euskarazko zerbitzu osoa, albo-kalte ondorioen bat pairarazi gabe (itxaron beharra, beste une batean deitu beharra, hitzordua hartu beharra, unean arazoren bat konpondu ezina...). Ertzain-etxe batzuetan ia ezinezkoa da neurri hori aurrera eramatea, Ertzaintzak berak emandako datuen arabera, ertzain-etxe batzuetan euskarazko gaitasun egokia duen agenterik ia ez dagoelako. Adibidez, uztailean jarritako kexa baten harira, unitate-buruak adierazi zuen Barakaldoko ertzain-etxeko hainbat agentek ez dutela arreta euskaraz emateko gaitasunik.

### 530-2021 dosierra

“Bilboko Zabalburuko ertzain-etxera (Autonomia kalea 1, Pedro Martínez Artola 2, bazterra) joan nintzen salaketa bat jartzera. Salaketa euskaraz egitea eskatu nuen eta esan zidaten momentu horretan euskaraz artatuko ninduen inor ez zegoela eta itxoin beharko nuela. Erdaraz egin nahi izatera berehala egiteko aukera izango nuela eta, gaztelania badakidenez, zertarako itxaron? iradoki zidaten. Nik ezetz, itxarongo nuela. Ordu eta laurden pasatxo itxaron ondoren, salaketa euskaraz egitea ahalbidetuko zidan agente bat azaldu zen. Honek “hace mucho que no hablo euskara pero lo intentaremos” (denbora asko da ez dudala euskaraz hitz egiten baina, tira, saiaturako gara) esan zidan. Salaketa egin nuenerako 18:45 ziren. Eta agente honen euskara maila dela eta, zalantzak ditut nik esandakoa zuzen jaso ote zen.”

Era berean, unitate batzuetatik jasotzen diren erantzunetan aipatzen den bezala, agente batzuek euskaraz ulertzen duten arren, ez dute eginbideak euskaraz egoki egin ahal izateko gaitasunik. Ondorioz, salaketak, aktak edo bestelako dokumentu eta inprimakiak gaztelaniaz betetzen dira herritarrak euskara erabili arren eta herritarrari gaztelaniazko dokumentu horiek ematen zaizkio sinatzeko.

Hizkuntza paisaiari dagokionean ere, pandemiari lotuta jarri diren segurtasun neurriekiko hainbat ohar eta kartel gaztelaniaz aurkitu dituzte herritarrek.

### 433-2021 dosierra

“Gasteizko Olagibel kaleko ertzain-etxearen atean erdara hutsean dute musukoa nahitaez erabiltzeaz ohartarazteko kartela. “Emergencia sanitaria” eta “Obligatorio” goiburua ditu, eta gero paragraforen bat edo beste. Nolatan, zergatik, noiztik eta noiz arte? Hain beharrezkoa da halako batean herritar batek kexa ipintzea halakoak konponbidean ipintzeko.”

Bestalde, 2020an gertatu bezala, Ertzaintzak eskoletan ematen dituen “bulling/ziberbulling” edo bide-heziketari buruzko hainbat formakuntza gaztelaniaz egin dira D ereduko zentroetako ikasleentzat ere. Segurtasun Sailetik eman duten erantzunaren arabera, hitzaldi edo formakuntza hauek Hezkuntza Sailarekin lankidetzakordioan zehaztuta daude eta zentroari euskarazko formakuntza eskatzeko aukera ematen zaion arren, jarduerak Segurtasun Saileko langileen prestutasunaren eta antolaketa gaitasunaren menpe egongo direla ezartzen da akordio horretan. Ondorioz, arazoak izaten dira formakuntzak euskaraz egiteko gai diren agenteak aurkitzeko.

“ Ertzaintzak berak emandako datuen arabera, ertzain-etxe batzuetan euskarazko gaitasun egokia duen agenterik ia ez dago ”

Herri ezberdinetako udaltzaingoei dagokienean, herri batzuetan euskarazko zerbitzu osoa eskaintzeko arazoak izan dira, izan ere, udaltzainen lanpostu batzuk ez dute euskararen derrigortasunik eta beraz, herri batzuetan euskaraz lan egiteko gai ez diren agente kopuru garrantzitsua dago oraindik. Hori gutxi ez eta deialdi berrietan ere derrigortasun datarik ez duten agenteen plazak ateratzen dituzte udal batzuek eta ondorioz, arazoak izaten dira herritarrak euskaraz artatzerakoan.

### 99-2021 dosierra

“Salburuko parkean nengoela, 18:00ak aldean, 092 telefonora deitu nuen, parkeko hegaztien behatoki batean kale-zurrutan zeudelako gazte batzuk, eta modu txarrean aurre egin zigutelako. 092 zerbitzuan ezin izan nuen euskaraz egin, telefono-hartzaileak “En castellano, por favor” esan baitzidan. Nola liteke, euskaraz ez dakien langile bat jartzea deiak jasotzen?”

Agente batzuek euskaraz zerbitzua eskaintzeko gaitasun nahikorik ez izatean, zenbait udalek herritarraren hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurri bezala beste agente bati deitzeko betebeharra ezarri dute. Hala ere, neurri honek, Ertzaintzaren kasuan gertatzen den bezala, albo-kalte ondorioak eragiten dizkio herritarrari eta hainbat faktore medio, ez da neurri eragingarria.

### 1037-2021 dosierra

“...Andoingo udaltzainetara joan nintzen. Artatu ninduen udaltzainarekin hizketan hastean, segituan “erderaz mesedez” esan zidan, euskaraz ez zekielako edo hobeto moldatzen zelako gaztelera. Zerbitzua gaztelera jasotzera behartua izan naiz.”

### 289-2021

“Erroldaren inguruko deia jaso dut Udaltzaingotik eta ezin euskaraz egin.”


“ Udaltzain lanpostu batzuk ez dute euskararen derrigortasunik eta beraz, herri batzuetan euskaraz lan egiteko gai ez diren agente kopuru garrantzitsua dago oraindik ”

Nafarroan batik bat, udaltzaingo ezberdinek dituzten sare sozial ofizialetatik ia mezu guztiak gaztelaniaz zabaltzen dira, askotan segurtasun neurriak edo mezu garrantzitsuak direla ere kontuan izan behar da.


Ertzaintzan gertatzen den bezala udaltzainek ere formakuntza saioak eskaintzen dituzte ikastetxeetan eta antzeko arazoak sortzen dira.

### 273-2021 dosierra

“Egun hauetan Urretxindorra ikastolako ikasleei txirrindu zirkulaziorako ikastaroa eman diete Bilboko Udaleko Udaltzaingok. Agenteak gaztelaniaz eman du ikastaroa eta ikasleen hizkuntza eskubideak urratu ditu.”



Iruñeko udaltzaingoaren mezua sare sozialetan, gaztelaniaz.



Inprimakia, gaztelaniaz.

Udal batzuetan, segurtasun alorretik erabiltzen dituzten inprimaki zein bestelako idatzizko dokumentazioak gaztelaniaz eskaintzen zaizkio herritarrari eta honek euskarazkoa eskatu arren, gaztelaniazko inprimakiak soilik edukitzen dituzte eskura, isunak eta bestelakoak ere gaztelaniaz idazten dira.



**05**

**Hezkuntza**

Hezkuntzaren alorrak eredugarri izan beharko luke hizkuntza-eskubideen ikuspegitik ere. Hezkuntza komunitate osoak euskaraz ikasi edo lan egin ahal izatea, hezkuntzari lotutako zerbitzu guztiak euskaraz jaso ahal izatea edo euskarazko material eta informazioa denon esku edukitzea, hezkuntza sistemaren kalitatearen seinale izan beharko litzateke. Hori guztia kontuan izan eta bermatzea, etorkizuneko gizarte berdinzale eta justuago bat eraikitzearen alde egitea da.

## Ipar Euskal Herria

Ipar Euskal Herriko hezkuntzan, eragin handia izan zuten eztabaidak zabaldu ziren Frantziako Asanblada Nazionalan. Izan ere, “Eskualde Hizkuntzen Ondare Babes eta Sustapenerako Legeak”, “Molac legea” bezala ezagutuak, murgiltze eredu Frantziako Hezkuntza Kodean sartu ahal izatea ahalbidetzeari atek ireki zizkion, horrek Ipar Euskal Herriko haurrek euskara ikasteko zituzten aukeretan eragin nabarmena izango zuelarik. Hala ere, 61 legebiltzarkidek legeari helegitea jarri zioten eta Frantziako Konstituzio Epaitegiak, euskarazko murgiltze eredu mugatzeaz gaindi, murgiltze eredu bera ere kolokan jarri zuen.

Honen aurrean, maiatzaren 29an, Baionan 10.000 pertsonatik gora bildu ziren euskarazko murgiltze ereduaren alde.

Bestalde, 2021ean ere “brebeta eta baxoa” azterketak euskaraz egin ahal izateko aldarrikapena puri-purian izan zuten Ipar Euskal Herriko ikasle, irakasle zein gurasoek eta hainbat ikastetxetan mobilizazio ezberdinak antolatu ziren.

Brebeta, kolegioan azken urtea bukatu ostean egiten den azterketa da eta baxoa, aldiz, bigarren hezkuntzako zikloa bukatzean goi-mailako ikasketak egin ahal



*Murgiltze ereduaren aldeko manifestazioa, Baionan.*

izateko egiten den azterketa. Beraz, ikasleen ibilbide akademikoa markatzen duten azterketak euskaraz egin ahal izateak berebiziko garrantzia du. Gogoratu dezagun, 2017tik aurrera baxoa azterketaren zati bat euskaraz egitea ahalbidetu zen arren, ikasleek jarraitzen dutela azterketa euskaraz egin ezinik. Beraz, euskaraz ikasten duten ikasleek berdintasunez proba horiek euskaraz egin ahal izatea aldarrikatzen dute; “Azterketak euskaraz” aldarrikapena aurrera eramateko, kolegiotan itxialdiak edo irakasleek frantsesezko azterketak zuzentzeari uko egiteko ekimenak ere martxan jarri ziren.



*Ipar EHko ikasleak Brebeta euskaraz egin ahal izatea aldarrikatzen.*

“ Hizkuntza eskubideak kontuan izan eta bermatzea, etorkizuneko gizarte berdinzale eta justuago bat eraikitzearen alde egitea da ”



## Euskal Autonomia Erkidegoa

Euskaraz ikasteko eskubidea gehien bermatua dagoen lurraldea izan arren, 2021ean jasotako kexek ere erakusten dute oraindik orain hutsune handiak daudela, bai euskarazko eskaintzan bai eta jasotzen diren zerbitzuetan.

Zentro zein profesional ezberdinek jasotzen dituzten mezuak, hezkuntza komunitatearen esku jartzten diren informazio, txosten, dokumentu eta bestelako materialak gaztelania hutsean izaten dira hainbatetan.

### 414-2021 dosierra

“Nola da posible Hezkuntza Sailak oharrak gaztelania hutsean idaztea?”



Euskaraz nabigatu arren, eduki batzuk gaztelaniaz daude.

### 593- 2021 dosierra

“Irudian ikus daitekeenez, Ikasgunea webgunean, euskara hizkuntza aukeratu arren, testu batzuk erdaraz daude.”



Hezkuntza publlirreportajea erdara hutsean.

### 621-2021 dosierra

“Ulergaitza da Berritzegunetik bidaltzen diren emailak gaztelaniaz egotea. Gutxieneko bat elebietan euskaraz lehenesten, eta euskal eskola publikora bidaltzen direnak posible dira euskara hutsean bidaltzea ere.”

Iragarki edo kartelen kasuan ere, deigarria izaten da betebeharreri buruzko ohartarazpenak bidaltzen ibili behar izaten dela, zuzenketak egin edo iragarkiak euskaraz ere jartzeko betebeharra dagoela gogorarazteko.

### 129- 2021 dosierra

“Deiak Elorrieta-Erreka Mari Lanbide Heziketako eskola publikoaren iragarkia dakar erdara hutsean.”



Iragarkia, erdara hutsean.

### 15-2021 dosierra

“Dot hilabetekarian HHE eskolak publlirreportajea argitaratu du, erdara hutsean. Publlirreportajearen, azpian, berriz, iragarki elebiduna; baina euskarazko bertsioa akatsez josita dago. Eskerrak eskola baten iragarkia den. Dirutza publikoa erdalgintzara doa, nahiz kontrako ustea zabaldu izaten den.”


### 867- 2021 dosierra

“Erantsita duzue Zallako Hizkuntza Eskola Ofizialak gaurko Deian argitaratu duen iragarkia. Euskaldunok bigarren mailako herritar?”



Zallako Hizkuntza Eskola Ofizialaren iragarkia, Deian.

Pertsona migratuei zuzendutako ikastaroetan euskarari ez zaio behar bezalako zentralitatea ematen. Adibide bezala, jarraian agertzen den kexarekiko, pertsona horien hizkuntzak beste batzuk zirela aipatzen zen zentro horretatik jasotako erantzunean eta horregatik ez zituztela euskarazko kartelak atera. Ez da kontuan hartzen, aldiz, kasu askotan gaztelania ere ez dela beraien hizkuntza eta mezu guztiak euskaraz ere helarazteko betebeharra dutela zentroek. Pertsona hauek ere euskara ikasi eta mezuak euskaraz jasotzeko eskubidea dute, Euskal Herriko hizkuntza den euskara beraientzat ere badela erakutsiaz.



Durangoko Helduen Hezkuntzako Ikastetxearen kartela.

### 833-2021 dosierra

“Durangoko Helduen Hezkuntzako Ikastetxearen kartela ikusi dut kalean. Erdaratu hutsean dago guztia, amaierako “Animatu eta etorri!” esaldia izan ezik...”

Bestalde, oraindik orain euskarazko material eta errekurso falta dago. Honen adibide, herritar batek D ereduan ikasten zuen alabari DBHn dislexia detektatzeko probak gaztelaniaz egin zizkiotela azaltzen zuen kexa. Berritzegunetik ematen zen erantzunaren arabera, diagnostiko proba batzuk euskarara itzulita dauden

“ Pertsona migratuek ere euskara ikasi eta mezuak euskaraz jasotzeko eskubidea dute, Euskal Herriko hizkuntza den euskara beraientzat ere badela erakutsiaz ”

arren, homologatu gabe daude. Beraz, euskarazko materialaren homologazioak berandu datoz, haurrek probak gaztelaniaz egin behar izaten dituzte eta horrek diagnostiko okerra edo ez-nahikoa eragin ditzake.

### 692-2021 dosierra

“Nire alabak dislexia du eta diagnostikoaren jarraipena egin diote gaur. Herri euskaldunean bizi da, etxean euskara jaso du eta DBH D ereduan ari da egiten, gaztelaniaz baino askoz hobeko moldatzen da euskaraz. Ikastetxeak gomendatuta, Berritzeguneak homologatutako probak egiten dituen zentro pribatu batera joan gara eta, gure harridurarako, proba gaztelaniaz egin diote, baina matematikakoa ere. Kezkatuta atera ginen. Esan bezala, proba hauek Berritzegu-

neak homologatuak omen dira. Nola eman ditzake balekotzat Jaurlaritzak gaztelaniaz egiten diren proba horiek euskaraz ikasi eta hobeki moldatzen den ikasle baten diagnostikorako? Zer fidagarritasun izan dezake nire alabak baldintza horietan eginiko testaren emaitzak? Zer sinesgarritasun emaitza horietan oinarritutako diagnostikoak? Probak euskaraz izateko eskubidea dugu. Egoera zuzentzeko neurriak eta konponbideak eskatzen ditugu”.

Hezkuntzatik antolatu ziren bileretan, ikastaroetan... informazioa euskaraz jaso nahi zutenen eskubideak ez ziren bermatu hainbat kasutan eta pandemia egoera ere aitzakia izan da 2021ean ere.

### 966- 2021 dosierra

“Eskola Publikoan ikasturte hasierako guraso bilerarako deia egin ziguten guztiei. Tutorea eta ikasketa burua izan ziren bertan. Hasieran egindako ohar labur batean esan ziguten bilera gaztelania hutsean egingo zela. Harridura adierazita, erantzuna izan zen “praktikotasunaren izenean” hala egitea izan dela eskolaren erabakia. Gerora jakin dut ez dela gure gela eta maila bakarra izan. Zuzendariarekin hitz egin dut, eta hark pandemia egoera jarri du aitzakia: burbuila taldea, ez luzatzea... Onargarria da hasierako barkamen eskaera izatea euskararen presentzia zantzu bakarra eskola publiko bateko guraso bilera batean? Ezezkoan nago. Minduta, haserre...”

### 972-2021 dosierra

“Covid-19 pandemiatik irteteko gaitasun sozio-emozionalak garatzea” ikastaroa, Berritzegune Nagusiak antolatutakoa, gaztelaniaz izaten ari da.”

Hezkuntzako sail ezberdinetan, oraindik euskarazko arreta jasotzeko zailtasunak daudela erakusten dute herritarren kekek:

### 1025-2021 dosierra

“Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza joan nintzen unibertsitate-titulua jasotzera, eta atenditu ninduen gizona gazteleraz zuzendu zitzaidan uneoro. Nik “egun on” esan eta hark “buenos días” erantzun zidan lehenik. Zer nahi nuen galde-tu zidan gero, “¿qué desea?”, eta nik, euskaraz, titulua jasotzera joana nintzela. Izan genituen hartu-eman guztietan hark gaztelera hutsean egin zuen, eta nik, euskarari eutsi nion 3-4 aldiz, baina, konturatu nintzeneko, gazteleraz bukatu nuen. Hark, aldiz, ez zuen hitz bakarra ere esan euskaraz.”

### 893-2021 2 dosierra

“Bilboko Hizkuntza Eskolara deitu dut gaur:  
- ¿Sí?  
- Egun on.  
- Egun on.  
- Deitzen dizuet ze orain dela bi hilabete korreo bat...  
- Erderaz mesedez.  
Ezin azaldu nolako amorrua ta ezintasuna sentitu dudan momentu horretan.”

### 175-2021 dosierra

“Euskal Herriko Unibertsitateak ez du euskarazko zerbitzua bermatzen. Gaur irakasleen plantillako langile batekin hitz egin dut, telefonoz. Hasieran euskaraz hasi dut elkarriketa, baina berehala moztu dit langileak, esanez “E, e, e, en castellano”. Unibertsitatea ez da gai euskarazko zerbitzua emateko, baina, gainera, errespetu gutxirekin exijitzen dizu gaztelaniaz egiteko. Administrazioako beste langile edo informatikako teknikari batzuekin ere ez dago aukerarik euskaraz aritzeko eta, Unibertsitate publikoa izanik, larria iruditzen zait.”

EAEko hezkuntzan hala ere, hutsune nabarmenak daude bai zenbait ikasketen euskarazko eskaintzan zein euskarazko eredia hautatzen dutenei ikasketa prozesu osoa euskaraz bermatzean.

### 419-2021 dosierra

“Gizarte Langintzako 4. mailako ikasleok Covid-19aren izurritea dela eta, ezin izan dugu praktikaldietan zehar esku hartze proiektuaren diseinu eta gauzapena burutu. Hori dela eta, gure formakuntza prozesua osatzeko helburuarekin, hainbat formakuntza mintegi antolatu ditu kurtso honetan EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintzako Fakultateak... Mintegi hauek hautazko formakuntza saioak izatetik harago, euskaraz matrikulatu garen 4. mailako ikasleonek derri-gorrezko lan akademikoaren zati esanguratsu bat direla azpimarratu nahi dugu. 7 mintegiak gaztelera hutsean burutu dira, kasu askotan, ponenteak euskaraz ondo

moldatzen ziren arren. Eman zaizkigun arrazoiak, mintegiak ez errepikatzea eta gaztelaniazko ikasleek euskara ez jakitea izan dira. Hau da, Euskal Herriko Unibertsitateak, beste behin, gazteleraz matrikulatu diren ikasleak lehenetsi ditu euskaraz matrikulatu garen ikasleon eskubideen ginetik. Bestalde, Gizarte Langintzako Graduan zehar (beste gradu gehienetan bezalaxe) ugariak izan dira euskaratu gabeko material akademikoak edota erdara hutsean burututako ekimenak, hainbat ikasgai gazteleraz burutzeraz derrigortuak izan diren ikaskideak ahaztu gabe (ikasgaiaren ikasle kopurua betea zegoela argudiatuz).”

Ekainean, Lanbide Heziketako euskarazko eskaintza urria salatu genuen, oinarrizko Lanbide Heziketan batik bat. Araban, 22 zentzoren artean hamahiru titulu eskaintzen dituzte, bakarria da D ereduakoa, ez dago B eredukorik. Hau da, 21 zentrotako hamabi titulu gaztelania hutsean eskaintzen dira.

Bizkaian, zentro bakarrean eskaintzen dituzte euskara hutsez egin daitezkeen bi tituluak eta beste bost zentrotako lau titulutan B ereduakoa dute, baina 85 eskolatak hamabi titulaziotik gaztelera hutsezko ereduakoa dute.

Gipuzkoan, berriz, titulu bakarria dago euskaraz, eta hamar ikastetxek eskaintzen dituzte B ereduakoa ikasketak (hiru publikoak dira eta zazpi itunpekoak).

Egoera honek erabat baldintzatzen du ikasleen hautua eta ondorioz, gaztelaniazko ereduak hautatu behar izaten dituzte ikasleek, baita hezkuntza ibilbide osoa D ereduan egin dutenek ere.

Erdi- eta goi-mailako zikloetan euskarazko eskaintza ugariagoa den arren, askotan ikasleek lurraldez aldatu behar izaten dute eta horrek erabat baldintzatzen du ikasleen hautua.

Bestalde, eskaintza falta honegatik B ereduan matrikulatu diren hainbat ikasle, eduki guztiak edo gehienak gaztelaniaz ematen dituztela ere salatzen dute.

### 301-2021 dosierra

“Nire semea mekanizatuko B ereduakoa lehen kurtsoan matrikulatuta dago (D ereduan ikasteko aukerarik ez du), baina gai guztiak erderaz ematen dituzte.”

Lanbide Heziketako legearen 27. artikulua arabera, euskarazko eskaintza, eskaeraren arabera eta eremu soziolinguistikoaren arabera bermatuko dela esaten da. Argi dago, lege babes hori ez dela nahikoa, ikasleek egiten duten eskaera eskaintzak baldintzatutakoa ere badelako, ondorioz, Lanbide Heziketako euskarazko eskaintza bermatu eta sustatuko duen bestelako diseinua egin beharra dago.

### Nafarroa

Nafarroan arazo nagusia euskarazko ikasketen eskaintza izan zen 2021ean ere. Euskararen legean ezarritako mugek, zein euskarazko lerro berrien irekierak dituzten oztupoek, erabat baldintzatzen dute euskaraz ikastearen aldeko hautua egitea. Hala ere, herri ekimenek, zein herri-gogoak berak, oztopo askori aurre egin eta gero eta gehiago dira beraien seme-alabentzat euskarazko ereduak borrokatzearen alde egiten dutenak.

Euskarazko eskaintza faltan, nabaria da oso Lanbide Heziketa zein Nafarroako Unibertsitate Publikoko

“ Lanbide Heziketako gaztelaniazko ereduak hautatu behar izaten dituzte ikasleek, baita hezkuntza ibilbide osoa D ereduan egin dutenek ere ”

egoera, non euskarazko eskaintzak aurrerapauso gutxi izaten dituen, zenbait kasutan hamarkadetan inolako aurrerapausorik ere eman gabe.

### 279-2021 dosierra

“Nafarroako Gobernuak aurkeztu duen Lanbide Heziketaren eskaintza, berriro ere euskarazko eskaintza bigarren mailan. Gradu ertaineko 12 ziklo berrietatik, bakarria emango da euskaraz.”

### 267-2021 dosierra

“Sakanako lanbide-heziketako ikasleek ez dute hizkuntza ofiziala aukeratzeko ia eskubiderik: ziklo bakarria eskaintzen zaie D ereduan. Gehien gehienek gaztelaniaz ikasten dute, ez dute ikasgai euskaraz, ezta euskara ikasgai ere.”

### 44-2021 dosierra

“Nafarroa Garaiko Lanbide Heziketako Donibane ikastetxearen webgunea gaztelaniaz baino ez dago. Bertan ziklo gehienak gaztelaniaz eskaintzen badira ere, bi euskaraz eskaintzen dira eta egokia litzateke webgunea euskaraz egotea.”

Nafarroako Unibertsitate publikoan euskararen plan estrategikoan, asmo edo aukera ezberdinez hitz egiten den arren, ez dira euskarazko irakaskuntza eskaintza bermatzeari begirako neurri eraginkorrak planteatzen eta ikasleek hainbat mobilizazio eta jardura egin zituzten 2021ean ere, unibertsitatean euskarazko titulazioen eskaintza eta euskarazko zerbitzuak aldarrikatzeari begira.

Baina, ez dira euskaraz ikasteko oztopoak dauden eremu bakarrak. Batxilergoa euskaraz egin ahal izateak ere oztopo ugari ditu eta 2021ean, besteak beste, Tafalla eta Zangozako ikasleen egoera ere salatu zen; ezin dituzte ikasketak bertan egin, eta Iruñean matrikulazioan egindako aldaketak eta hezkuntza mapa dela eta, ez zieten tokirik bermatzen.

Haur eskoletan ere egoera ez zen askoz hobea izan 2021ean. Iruñean kokatutako haur eskoletan euskarazko murgiltze eredu eskaintako plazen murrizketa nabarmena izan zen eta euskara-ingelesa eredu berriek, euskarazko irakaskuntza egokia bermatuko ez duela salatu zuten guraso zein profesional ezberdinek. Horiez gaindi, euskarazko eskaintza auzo guztietan bermatua ez izateak, gurasoek egiten zuten hautua baldintzatzen zuela ere salatu zuten.

Bestalde, Nafarroako Hezkuntza Departamentuko Sail ezberdinetako arreta zein zerbitzuekiko kexak ere helarazi zituzten herritarrek.

### 440-2021 dosierra

“Astelehenetik aurrera aurrematrikulazio epea hasiko da Haur eta Lehen Hezkuntzan. Inskripzio telematikoki egiteko jarraibideak bidali dizkigute (D ereduko ikastetxetik). “Sentitzen dut, baina dena gaztelaniaz dago” esan didate.”

### 519-2021 dosierra

“Irakaskuntzako oposizioak egin ahal izateko entregatu behar den Programazio Didaktikoaren aurkezpenaren informazioa euskaraz helarazi bai baina diapositibak gaztelaniaz daude, euskaratu gabe, nahiz eta soilik euskaldunak egon ekitaldian.”

### 1022-2021 dosierra

“Urriaren 6an Ezkaba ikastetxe publikora telefonoz hots egin nuen eta: “erdaraz mesedez” eskatu zidaten. Erdaraz egin behar izan nuen.”


### 1032-2021 dosierra

“D ereduko familia gara. Chromebooka erabili ahal izateko eskolak “INSTRUCCIONES DE PRÉSTAMO DE DISPOSITIVOS A LOS CENTROS EDUCATIVOS DE LA RED PÚBLICA” izeneko dokumentua igorri digu e-postaz eta alabak “aceptación compromiso de uso del dispositivo” izeneko inprimakia ekarri du gaur eskolatik guk sinatu eta eskolara bueltatzeko. Dezepzionatuta, triste, haserre... nago. Familia euskaldunetz



Iturria: Berria.

“Euskaraz bizi nahi dut” mobilizazioa.



Haur Hezkuntzako matrikulazioaren informazioa.

erabat ahaztu zarete. Ikusezinak gara zuek dako?!...”

## 1145-2021 dosierra

“Funtzionario berrientzat “Lan osasuna eta Laneko Arriskuen Prebentzioa” ikastaroa gaztelania hutsean eskaintzen du Nafarroako Gobernuak.”

## 124-2021 dosierra

“Nafarroako Unibertsitate Publikoa euskaldunon eskubideak urratzen ari da berriz ere. Erregistroan instantzia bat betetzera joan naiz eta bertako langileak ezin izan nau euskaraz artatu. Erasmusaren tramite bat egiterakoan, bertako langilea gaztelaniadun elebakarra zen eta informazio guztia gaztelania hutsean eman dit.”

Servicio de Tecnologías e Infraestructuras TIC Educativas  
Hezkuntzako Teknologien eta ICT Arloetako Zerbitzuak  
Santo Domingo, 1  
31001 PAMPLONA/PAMPLUNA  
Tel 948 420554  
ticeeducativas@educacion.navarra.es

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua  
Departamento de Educación Hezkuntza Departamentua

**INSTRUCCIONES DE PRÉSTAMO DE DISPOSITIVOS A LOS CENTROS EDUCATIVOS DE LA RED PÚBLICA**

Dentro de la estrategia de Transformación digital educativa ikasNOVA, el Departamento de Educación pone a disposición del alumnado un Chromebook.

Dada la titularidad pública de los Chromebooks, con carácter previo a la distribución de los equipos es necesario establecer unas instrucciones de Préstamo

**1. Objeto y finalidad**

1. Este servicio de préstamo del Departamento de Educación del Gobierno de Navarra, tiene como fin impulsar la estrategia de transformación digital educativa ikasNOVA.
2. El bien objeto del préstamo no podrá ser utilizado para otras actividades fuera del ámbito educativo.
3. El servicio de préstamo será supervisado y coordinado en el centro por los tutores y por la persona responsable de transformación digital educativa.

**2. Destinatarios**

1. Podrá acceder a este servicio de préstamo el alumnado matriculado en algún curso a partir de 4º de Primaria.
2. Los tutores legales, al hacer uso de este servicio, aceptan las responsabilidades, condiciones e instrucciones del presente documento.

**3. Titularidad**

1. Los elementos de préstamo son propiedad del Departamento de Educación.
2. El equipo que se preste podrá no ser nuevo, habiendo sido utilizado previamente por el alumnado, por lo que pudiera tener el correspondiente desgaste por su uso, pero se entregará en perfecto estado de funcionamiento y sin roturas.
3. Una vez que progenitores o tutores legales hayan aceptado las instrucciones de préstamo, asumen su responsabilidad en cuanto al buen estado y custodia del equipo.

**4. Obligaciones**

1. Cada estudiante tendrá asignado un equipamiento intransferible, que constará de un Chromebook, su cargador y una funda o maletín de transporte.
2. El alumno o alumna, además de utilizarlo en el aula, podrá llevarlo a casa.
3. Es obligatorio el uso de la funda de protección proporcionada por el Departamento de Educación, u otra de similares características.
4. Deberá traerlo todos los días al centro.

*Eskolan Chromebook-a erabili ahal izateko bidalitako dokumentua.*



**06**

**Herriko etxeak  
eta udalak**

Herriko etxe eta udaletan aurrerapausoak ere eman diren arren, zenbait herri eta hiritan oraindik ez dira zerbitzu guztietan herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzen. Izan ere, herriko etxe eta udalak kokatuak dauden eremu administratiboko legediaren arabera neurriak hartzeaz gaindi, beraien eskuetan izaten da herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko hizkuntza-politika egoki bat aurrera eraman eta horiek martxan jartzeko neurri eta mekanismo egokiak ezartzea. Beraz, egoera oso ezberdinak aurkitzen ditugu udal edo herriko etxearen arabera. Hala ere, zenbait udal eta herriko etxetan herritarren hizkuntza-eskubideak ez dira lehentasun eta ondorioz, neurri ezberdinak bermatzen direla ziurtatzeko mekanismoak falta dira.

2021ean, paisaia linguistikoan (aldi-baterakoan zein finkoan) erdara hutsean idatzitako hainbat ohar, kartel edo seinale aurkitu zituzten herritarrek. Beste hainbatetan euskara traketsen idatzitako oharrak ikusi zituzten.

**782-2021 dosierra**

“Baionako trafiko-seinaleak eta oharrak frantsesez baizik ez daude.”



Bide-seinaleak frantsesez, Baionan.

**1304-2021 dosierra**


“Ospitalepeko elizaren inguruan jarrita dauden turismo-informazio paneletako testuak, frantsesez, ingelesez eta gaztelaniaz idatzirik dira, ordea, euskarazko testurik ez dago aipatu paneletan.”



Euskararik ez, Ospitalepeko turismo paneletan.

**743-2021 dosierra**

“Biasteriko Udalak herriaren erdialdean musukoa erabiltzeko gomendioa ematen duen oharra zabaldu du gaztelania hutsean, euskaldunok ez dugu musukoa eramateko gomendiorik...”



Biasteri edota Iruñeko Udalen ohar eta iragarkiak, gaztelaniaz.




Udal batzuetatik zabaltzen diren mezu orokorretan ere urraketak izan ziren. Herritarrek eskaria euskaraz egin arren, erdaraz erantzuten zaie, udalen kasuan sail batzuetan ez dituztelako behar bezala betetzen ezarritako dituzten jarraibideak.

### 248-2021 dosierra

“Kotxearen zirkulazio zerga ordaintzeko gutuna heldu zait. Dena gaztelaniaz, udalari behin baino gehiagotan udalarekin harremana eta jasotzen ditudan jakinarazpen guztiak euskaraz nahi ditudala adierazi arren.”

### 554-2021 dosierra

“Donostiako Udalak, nik euskaraz idatzita ere, espainol hutsez erantzun dit.”



Zerga ordaintzeko gutuna, gaztelania hutsean.

Webgune askotan euskarazko eduki gutxiago zabaltzen dira eta mugikorretarako aplikazio zein bestelako euskarri telematikoetan, euskara hautatzerakoan akats ugari agertzen dira edo edukiak partzialki soilik euskaratzen dituzte.

### 604-2021

“Iruñeko alde zaharrera kotxearekin sartu ahal izateko, baimena eskatu behar da. Baimena eskatzeko “tok-tok” aplikazioan euskaraz dagoen bakarra, kalea hitzaren laburdura (k) eta sarreraren arrazoia.”

Herriko etxe eta udalen hainbat zerbitzutan, herritarrekiko arreta zuzenean ere, ez da behar bezala bermatzen euskarazko arreta.

### 1217-2021 dosierra

“Bilbobus-eko arreta zerbitzura deitu dut gaur, 09:45 aldera. Telefonoa hartu duenak ez zekien euskaraz eta erdaraz mintzatu da une oro nik esaten nionari jaramonik egin gabe.”

Horrelakoak oso ohikoak izaten dira batik bat azpikontratutako zerbitzu publikoetan ere. Kontratutako hitzarmen edo akordioetan euskarazko zerbitzua bermatu behar dela jasota izan arren, ez da baldintza horren betetzea ziurtatzen edo askotan, ez betetze horri ez zaio behar bezalako trataera ematen (euskararen alorreko ez betetzeek normalean ez dute ondorioz izaten esleipendun enpresarekiko).

### 342-2021 dosierra

“Zuhaizti kiroldegia itxiko dutenez, zer egin azaltzeko SMS bat bidali digu BPX enpresak, gaztelera hutsez.”



“ Kontratueterako hitzarmenetan euskarazko zerbitzua bermatu behar dela jasota izan arren, ez da betetzea ziurtatzen azpikontratutako zerbitzu publikoetan ”

Ipar Euskal Herrian, herritarrei azaltzen zaien informazio orokor asko ere frantses hutsean zabaltzen dira eta ondorioz, herritarrak baztertuak sentitzen dira. Honez gain, diru-laguntza eskaerak edo bestelako dokumentuak ere frantsesez aurkeztu behar izaten dituzte herriko etxeetan. Udal batzuek gai honekiko aurrerapausoak eman nahi dituzten arren, Frantziar Estatuko legediak frantsesez aurkeztera behartzen dituzte eta ondorioz herritarraren gain jartzen dute itzulpena egin beharra. Erakunde publikoaren betebeharra izan behar harko litzateke.

### 1008-2021 dosierra

“Urte anitz dira elkarte ezberdinek euskara hutsean egin dituztela dirulaguntza eskariak inongo arazorik gabe. Erabaki honekin euskaldunak diskriminatzen ditu, eta euskararen erabilpenean atzerako urrats bat da.”

**774-2021 dosierra**

“Baionako besten ezeztatzeari buruzko informazioa frantses hutsean emanez, Baionako bertze bi hizkuntzak (euskara eta gaskoina) baztertuak dira. Zinez Baionar guztion Herriko Etxea izateko, Baionako hizkuntza guztiak hartu behar dira kontuan.”

Herritarren beste kexa iturri nagusi bat, herriko etxe eta udaletatik antolatzen dituzten jardueretikoa da. Izan ere, hainbat herritan euskarazko jarduera gutxiago izaten direla salatzen dute, beste hainbatetan, jarduera euskaraz izango dela iragarri arren, praktikan erdaraz egindako jarduerekin aurkitu dira herritarrak.

Gehienbat aisiari lotuta antolatzen diren jarduera publikoetan izaten dira nagusi gaztelania edo frantsesa: kirol ikastaroak, antzerkiak, musika emanaldiak... Kasu batzuetan, jarduera euskaraz programatua izan arren, euskara ez dakien norbait apuntatzen bada, erdaraz ere egin izan direla salatzen dute herritarrak. Era berean, herriko etxe eta udaletatik antolatutako haurrentzako eskaintzan euskarazko aukera gehiago izaten den arren, gazte edo nagusienentzako eskaintza gehiena gaztelaniaz edo frantsesez izaten da eta horrek erabat baldintzatzen ditu beraien eguneroko hautuak zein hizkuntza ohiturak.

“ Jarduera euskaraz izango dela iragarri arren, praktikan erdaraz egiten dira ”

**150-2021 dosierra**

“Otsaileko Civibox-etako kultur eskaintzan, 49 ekimenetik 5 soilik euskaraz (horietatik 4 haurrentzat edo familientzat). Lotsagarria Iruñeko Udalak hiritarrokiko duen errespetu eza.”

**268-2021 dosierra**


“Arabako Lautadako Turismo Bulegoan, Agurainen, izan gara elizen txangoan txanda euskaraz hartzeko asmoz. Esan digute garai batean bai baina duela urteak ez dagoela aukerarik txango hori euskaraz egiteko. Zur eta lur gelditu gara.”

**992-2021 dosierra**

“Gure 3 urteko semea Azkuna Zentroaren igeriketa ikastaroan apuntatu dugu. Udalaren “Bilbao Kirolak” abonuaren sarean dago. Izena ematerakoan ez da aukerarik ematen ikastaroaren hizkuntza hautatzeko; eta berez, kurtsoa gaztelaniaz garatzen ari da.”



Gazte edo nagusienentzako eskaintza gehiena, gaztelaniaz, Donostian; haurrentzako euskarazkoa ere ez da bermatzen beti.



Atxondoko Udalaren iragarkia.

### 977-2021 dosierra

“Ultzamaldeako Kirol Mankomunitateak antolatzen dituen jarduera guztietan (heldu, gazte, txiki), bi besterik ez euskaraz.”

### 1269-2021 dosierra

“La Sesarre kiroldegian ematen diren ekin-tzak gaztelaniaz baino ez dira eskaintzen. Hori-en artean umeei zuzendutako igerilekuko ikastaroak. Gaur egun hau onartezina dela uste dut eta gutxienez bi aukerak eskaini beharko lirateke, bai nagusi bai umeentzat.”

### 872-2021 dosierra

“Derioko Udalak martxan jarri ditu udal ikastaroak. Kontua da ikastaro guztiak defektuz gaztelaniaz direla, ez dago euskarazko eskaintzarik.”

Udal eta herriko etxeek prentsan iragarkiak jartzen dituztenean, irizpide ezberdinekin topo egiten dute herritarrek. Izan ere, hainbatek erdarazko prentsan



Gasteizko Udalak babestutako ekimen baten iragarkia.

jartzen dituzte gehientsuenetan iragarkiak eta erdara hutsean idatziak izaten dira. Euskaraz bizi diren pertsonak kontsumitzen dituzten medioetan iragarkirik ez jartzearen ondorioz, informazio gutxiago heltzen zaie pertsona hauei eta nola ez, kasu honetan ere albo-kalte ondorioak sortzen dira.

Udalek diruz lagundutako ekimen eta jardueretako iragarkietan ere, ez da behar bezala bermatzen euskarazko publizitatea.

### 238-2021

“Egunkarietan jartzen dituzten iragarkien azalpenak erdara hutsean daude. Gainera izenburuan gaztelania lehenesten dute arauak alderantziz izan behar dela dionean.”

### 659-2021

“Gaurko Deian erdara hutsean argitaratu du iragarkia Atxondoko Udalak...”

### 664-2021

“Gorlizko Udalak orrialde beteko publizitatea argitaratu du erdara hutsean gaurko Deian.”

Honi lotuta 2021ean, Iruñeko Udalak publizitate instituzionaletik kanpo utzi zituen euskarazko hedabideak, argudiatuaz udaleko iragarki edo bestelakoak medioetan argitaratzeko, audientzia osoaren %10a gutxienez izan behar dutela eta medio hauek ez dutela baldintza hori betetzen. Beraz, ez da udaleko iragarkirik euskarazko medioetan (ezta euskaraz) argitaratzen ez zabal-tzen:

### 319-2021 dosierra

“Iruñeko Udalak, publizitate instituzionaletik kanpo utzi ditu euskarazko hedabideak, ez dutelako audientzia osoaren %10. 2016ko inkesta soziolinguistikoaren arabera, Iruñeko euskaldun osoak %10,5 direnez, ia ezinezkoa da baldintza hori betetzea. Iruñeko euskaldunak garenez, gure protesta adierazi nahi dugu. Guk ere eskubidea dugu publizitate instituzionalaren informazioa jasotzeko euskarazko hedabideetan. Iruñeko Udalarari erabaki hori bertan behera uzteko eskatzen diogu.”

Bestalde, aipatzekoa udal eta herriko etxe batzuek lege esparru edo eremuetatik harago hizkuntza-eskubideen aitortzarekiko hartzen dituzten erabakiak.

“ Udal eta herriko etxe batzuek hartzen dituzte lege esparru edo eremuetatik harago hizkuntza eskubideen aitortzarekiko erabakiak ”



Iturria: Miarritzeko Herriko Etxea.

Miarritzeko Herriko Etxean, euskara-frantsesezko lehen familia liburua sortu zen apirillean.

Nafarroan, Sartagudan adibidez, Errigora-ren ekimenez herriko kale izendegien plaka guztiak euskaraz jartzeko erabakia hartu zen 2021eko maiatzean.

Lapurdin, Miarritzeko Herriko Etxeak euskara-frantsesezko lehen familia liburua sortu zuen 2021eko apirillean, Bretaina edo Korsikako zenbait herritan egin duten bezala dokumentu horien bertsio elebidunak argitaratuaz. Tamalez, euskarri sinbolikoa izaten jarraitzen du, baina herritarrek toki-erakundeekin duten egunerokotasunean euskararen aitortza eta presentzia bultzatzen ditu.




Iturria: Agerraldia.

Sartaguda.

Herriko etxe eta udalen barne funtzionamendurako hizkuntzari dagokionean ere asko dago egiteko. Batzordeak, batzar deialdiak, aktak, dokumentu ezberdinak... erdara nagusitzen da udal eta herriko etxe batzuen barne prozeduretan.

Nafarroan batik bat, online plataformak eta egoitza elektronikoak ezartzean, tartean Nafarroko Gobernuaren

gestioa edo honek azpikontrataturako zerbitzuak izaten dira eta Nafarroako Gobernuaren egoitza elektronikoa zein izapide elektronikoak gaztelania hutsean konfiguratuak izaten dira. Honen guztiaren ondorioz, herritarrari heltzen zaizkion dokumentuak euskaraz sortu nahi badituzte, ahalegin berezia egin behar izaten dute Nafarroako Udalek.



### 42-2021 dosierra

“Orkoiengo Udaleko batzordeen eta batzarren deialdiak ele bietan jasotzen genituen eta orain gaztelaniaz baino ez ditugu jasotzen, Euskararen Ordenantza bera urratuz...”

### 401-2021 dosierra

“Bilboko Udalaren web orrialdean euskarazko nabigatzailea hautatu dut, udalaren esleipen kontratu ezberdinekiko informazioa behar nuen. Esleipenari buruzko kontratu gehienak gaztelania hutsean daude.”

Osoko Bilkura zein bestelako bileretako hizkuntza ohituretan ere erdara nagusitzen dela salatzen dute herritarrek.

### 295 dosierra

“Antsoingo Udalaren osoko bilkurak erdaraz egiten dira. Euskararen presentzia sinbolikoa da: Agurrak, eta landu beharreko puntuen irakurketa. Alkateak, Idazkariak eta zinegotzi guztiek erdaraz egiten dute euren interbentzioetan. Horrela, herritarrak gaztelaniaz jasotzen dugu bilkuren informazioa.”



*Euskararen bazterketa adibideak Baionan, Barakaldon eta Uztaritzen.*



**07**

**Kultura, aisia  
eta kirola**

Kultura, aisia eta kirola herritarren denbora eta aktibitate ekonomikoaren parte garrantzitsua dira. Gure denbora librean kontsumitzen ditugun zerbitzuak izanik, gizarteko eragile ere badira eta nola ez, euskaraz bizi ahal izateko ezinbesteko espazioak.

Kultura eta aisiaren alorrean, iragarki, kartelak... hainbat euskarri gaztelania hutsean aurkitu zituzten herritarrek, baita laguntzaile bezala erakunde publikoak dituzten kultura jardueretakoak ere.

**1172-2021 dosierra**

“Arte garaikidearen Nafarroako Unibertsitate Museoak Iruñeko markesinetan jarri dituen iragarki guztiak gaztelania hutsean daude, webgunea ere gaztelania hutsean dute.”

**210-2021 dosierra**

“Larunbatean Durangoko Zugaza zineman, emanaldia bertan behera geratu zan, hori iragartzeko kartelak erdera hutsean.”


Webgune eta sare sozial zein herritarrei helarazitako mezuetan ere urraketak izan ziren eta euskara erabili zen kasu batzuetan, euskara traketsak erabiltzearen ondorioz, mezu ulertezinak zabalitzen zirela aipatu zuten herritarrek.

**123-2021 dosierra**

“UHARTE Arte Garaikideko Zentrotik bidalitako posta erdara hutsean dago.”

**1137-2021 dosierra**

“BECetik erdara hutsean jaso dut sms-a: Publi Mañana arranca RETROCLASICA. Cientos de vehiculos clasicos, de época y coleccion. Compra tu entrada online. <https://bit.ly/3kk45iq> -<http://bit.ly/sms-stop>”



*Iruñeko museoko iragarkia, Zugaza zinemetako oharra eta BECeko mezua, gaztelania hutsean.*

### 14-2021 dosierra

“Iruñean Gabon hauetarako antolatu den “Santas Pascuas” jaialdiaren orrialdean euskarazko informazioa era oso traketsen dago idatzita, testu gehienak ez dira zuzenak eta ez da ezer ulertzen.”

Hizkuntza paisaian ere euskararen presentziarik ez da izaten zenbait jardueretan, dena gaztelaniaz edo frantsesez errotulatu da.

### 649-2021 dosierra

“Urbasako kanpinean ematen den hizkuntz eskubideen urraketa salatu edo plazaratu nahiko nuke. Urbasako kanpina Nafarroako Gobernuarena da eta bere kudeaketa enpresa bati edo partikular bati esleitua diote. Kanpin hori “Nafar guztiona izanik” uste dut ezin dugula onartu euskarak ia presentziarik ez izatea. Maiz joateko joera dugu eta bertako taberna-jatetxean kartel ia guztiak erdara hutsean daude, bakarra ikusi bainuen elebiz atzo izan ginenean. Ikus entzunezko paisaia erdara hutsean dago, bai menuen kartelak, mahaien zenbakiak, aholkuak, iradokizunak, musika.. eta uste dut langile bakarria euskalduna dela. Zurito bat eta deskafeinatu bat esnearekin eskatu eta” hablame en castellano” erantzuten duten langileak.”

### 1009-2021 dosierra

“Bidarte-ko Bidaparc parkean, sarrerako “ongi etorri” izan ezik, ez zegoen ezertxo ere euskaraz jarrita, eta langile bakar batek ere ez zuen ulertzen.”



Santo Domingo merkataluan, S / N, Iruña, Nafarroa, 31001, Espainia(mapa)

Ondoren, bira erdia munduko Mexiko, AEB, Japonia, Frantzia, Italia, Txile, Errusia... pandemia gelditu du parte, beren proiektuak, baina ez guztiak, zeren orain harritu egiten dute gurekin horiek bi bertsoiak edizio berezia binilo.

“Aitzstar”, bere azken lana burutzeko, biltzeko da sari asko urte honetan zehar 2020. Izan zen sortutako nonahiko Ricky Falkner al Casamurada Estudioetan, Jordi Mora kontrolak hartan, hirugarren diskoa irekilzen lurralde berriak eta bideak bere basamortu idorretan eta rock antzezlanak stoner paisaiak eta hirurogeita intentsitate batera, contagiously heavy eta ozen erritmo beharrezkoa Gizartea XXI. mendean. Intentsitate bat etapa hori gutxi taldeak harro. Kendu corsets, ez izan zalantzarik, hurbildu mugan edo psikodelia lur.

Nork ez du murgiltzea, album honetan, berau izango da ziurrenik delako bihurtu zen gor bat, bere aurreko kontzertuak.

*Iruñean Gabonetarako antolatutako jaialdiaren inguruko informazioa, euskara oso traketsen.*

Eskaintza kulturala zein aisiaren barruan antolatutako zenbait ekintzetan ere euskarazko aukeren falta izan da.

### 1040-2021 dosierra

“Nafarroako liburutegi publikoak urritik abendura antolatutako jardueren barruan, euskarazko bi ekitaldi baino ez daude, ingelesezkoak adibidez hiru dira. Sekulako amorrua sortzen dit!”

### 427-2021 dosierra

“Zer dela eta antolatzen diren asteburuetako ekintza guztiak dira gaztelaniaz bakarrik? Gainera, ekintza guztiak edo gehienak

umeei zuzendurik daude eta hauek ere euskaraz izateko eskubidea dute. Espero dut hemendik aurrera Euskal Herriko hizkuntza kontuan hartzea ekitaldiak egiterako orduan eta batez ere gure gaztetxoentzako direnean, beraiek baitira gure etorkizuna.”

### 146-2021 dosierra

““AUSCHWITZETIK HARATAGO” kultura programa aurkeztu du Gipuzkoa Kulturak. Eztabaida eta hitzaldi zikloak osatzen dute programazioa. Bisita gidatuak kenduta, hitzaldi, mahai-inguru eta bestelako eduki guztiak gaztelaraz izango dira, euskaraz bat ere ez.”



**644-2021**

“Nola da posible ikastetxeei, hau da umeei, zuzendutako tailerrak gaztelaniaz izatea? Hizkuntza eremu guztietan zaindu behar dugu eta gehiago eremu ludikoetan non ikasleek bizipen positiboetatik hizkuntzaz gozaten duten. Eskertuko genuke hemendik aurrera euskaraz izatea.”

Aisialdiaren barruan, ikus-entzunezkoek gero eta eragin handiagoa dute herritarren aisirako eskaintza-aren barruan. Euskarazko aukera gutxi izaten dira bai zinemetan, zein streaming plataformetan. Euskarazko eskaintza dagoen kasuetan ere, ez dira herritarren eskura jartzen eta tamalez, herritarrek film zein marrazki bizidunak gaztelaniaz edo ingelesez kontsumitu behar izaten dituzte, horrek etorkizuneko herritarren ohituretan izango duen eragina kontuan hartu gabe.

**46-2021 dosierra**

““Elfkinak” haur filma gaur estreinatuko da, baina herri askotan gure umeek ez dute aukerarik izango euskaraz ikusteko. Yelmo zinemetan bakarrik espainolez ikusi ahal izango da. Sesioen bat euskaraz ere egotea eskatzen dugu.”

**302-2021 dosierra**

““La casa del reloj en la pared” bezalako pelikulak euskaraz egon badaude, baina filmin bezalako plataformetan ez dituzte eskuragarri jartzen. Filmak euskaraz ikusteko eskubidea dugu.”



*Bidarteko Bidaparc parkean ezertxo ere ez, euskaraz.*

**516-2021 dosierra**


““Maia Erlea: Urrezko Esfera” ikustera joan nahi izan dugu eta bakarrik gaztelaniazko bertsioa dago Barakaldoko Cinesa zineman (Max Centre), beraz Ballontiko zinema batera joatea erabaki dugu. Ondo legoke gutxienez egunean saio bat euskaraz izatea.”

**736-2021 dosierra**

“Gaur Space Jam pelikula estreinatu da zinema guztietan, eta Barakaldoko Cinesa aretoetan 8 saio egon dira, bat ere ez euskaraz. Lotsagarria da! Barakaldoko umeak Ballontira eraman behar izan ditugu!”

**896-2021 dosierra**

“Zergatik ez du HBOk euskarazko edukirik eskaintzen plataforma berrian? Askok gara euskaraz kontsumitu nahi dugunok.”



*Gipuzkoa Kultura eta Nafarroako liburutegiko eskaintza ia guztia gaztelaniaz.*

Honen harira, 2021eko ekainean “Pantailak euskaraz” mugimendua sortu zen. “Netflix Euskaraz” eta “Disney Plus Euskaraz” taldeak, Tinko Euskara Elkarteak eta Bieuse bikoiztaileen Elkarteak, eta beste hainbat eragilek ere ekimenari babesa eman zioten. Aldarrikapen na-

gusienak, hizkuntzaren normalizazioan pauso sendoak ematea, euskarazko ikus-entzunezkoen produkzioa sustatu eta hedatzea eta bikoizketa indartzea dira. Izan ere, “streaming” plataformetan euskarazko kuotak ezartzeaz gaindi, bikoizketa eta euskarazko produkzioa indartu eta EITB normalizaziorako tresna bihurtzea ezinbesteko erronkak izango dira.

EITB taldeak hainbat kexa jaso zituen, bai akats ezberdinengatik, hizkuntzarekiko hartu zituzten erabaki eta irizpideengatik, zein euskara traketsa erabiltzeagatik.

### **278-2021 dosierra**

“Gaur 2021/04/01eko gaueko ETB1eko albistegian, Covid-ari buruz gazteleraz emandako iritzi batzuk ez dituzte azpitolatu euskarara. ETB2koan, berriz, euskaraz emandako beste iritzi batzuk, bai azpitolatu dituzte gaztelerara.”

### **114-2021 dosierra**

“Unai Vencedor jokalaria Athletic-ekin kontratua luzatu duela iragarri dute ETB1eko gaur eguerdiko Gaur Egunen. Jokalariaren adierazpenak gaztelaniaz eman dituzte eta Athletic-en web orrian ikusi dut agerraldian adierazpenak euskaraz (ere) egin dituela jokalaria. Zergatik ez dira jartzen bere adierazpenak euskaraz euskarazko albistegian? Sekulako amorrua sentitu dut.”

### **1255- 2021 dosierra**

“2021eko abenduaren 12a, ETB1ean, eguerdiko Gaur Egunen zenbait kale elkarrizketa erdaraz. Ez da batere zaintzen euskarazko

elkarrizketak eskaintzea. Etb2ko Teleberri aldiz, apenas entzuten da euskara eta ETB1eko albistegian euskaraz entzundakoak erdaraz egiteko eskatzen diete. Tuterako berrien atalean 10 elkarrizketa ingurutik 3 euskaraz eta gainontzekoak erdaraz. Bilboko eguraldia ona dela eta terrazen inguruko berriak, sei elkarrizketa inguru erdaraz. Beste irizpide batzuekin jokatu eta gehiago zaindu beharko litzateke gai hori”.

Irizpideen artean, herritarrek etb2rako adierazpenak gaztelaniaz egiteko eskatzen dietela aipatzen zuten. Batzuetan, ez dira euskarazko adierazpenak azpitolu- luekin gaztelaniazko katean jartzen eta beraz, gaztelania erabiltzen duten herritarrak bilatzen dituzte.

### **626-2021 dosierra**

“EITBtik gasolindegia bateko arduradun bezala deitu ninduten, erregaien prezioen igoerari buruz Gaur Egun eta Teleberri-n hizketan agertzeko. Goizeko 10:00ak inguru, euskaraz egiten ez duen sektoreko kide bat Gaur Egun zein Teleberri-n agertzeko deitu zuten. Berak 13:00ak arte ezin zuen eta kazetariei berandu egiten zitzaieen Gaur Egun-a prestatzeko. Orduan, ni deitu ninduten. Gazteleraz egitea eskatu zidatenean, kostatu zitzaidan arren, nik euskaraz bakarrik erantzungo nuela esan nien; Teleberri-n euskaraz entzutea ere plazer bat dela adieraziz. Nire sektoreko kidea bi informatiboetan agertzeko deitu zuten, nik aldiz, ez nuen euskaraz Teleberri-n agertzeko eskubiderik izan”.

Antzeko kasu bat bizi izan zuen THE ligako arraunlari batek liga honetako komunikazio taldekoek gaztelaniazko adierazpenak eskatzean:



“ Bikoizketa eta euskarazko produkzioa indartu eta EITB normalizaziorako tresna bihurtzea ezinbesteko erronkak izango dira ”

### **769-2021 dosierra**

“Eusko Label (TKE/ACT) ligako estropadak jokatu ziren Castron eta Lekeitio. Igandean, estropada bukatuta ACT TVkoek, ligako komunikazioa daramatenek hain zuzen, elkarrizketa bat egitea eskatu zidaten. Elkarrizketa egin aurretik eta mikroa jarria zidatenean adierazi zidaten euskaraz eta gazteleraz egin behar nituela deklarazioak. Nik euskaraz bakarrik egin nahi nuela adierazi nien eta ezezkoa jaso nuen, gazteleraz egiten lagunduko zidatela argudiatuz. Hizkuntza arazo bat ez zela berretsi nien, printzipio kontu bat baizik, eta erantzun zidaten ACTn geundela eta printzipioak baztertu behar zirela. Nahi bazuten azpitoluak jar zitzaketela esan nien baina euskaraz egingo nuela mantendu nuen”.

Kirolaren alorra erreferente dugu gizartearen egunerokoan. Horregatik, herritarrei kirol talde zein federazioetatik helarazten zaizkien mezuak euskaraz hela-

raztea, herritarren eskubideak kontuan hartzeaz gaindi, euskara erreferente bilakatzea ere bada. Webgune, sare sozial zein bestelako bideetatik zabaltzen diren mezuetan erdara gailentzen dela aipatzen zuten herritarrek 2021ean ere.

### 337-2021 dosierra

“Emakumeen Nafarroako klasikoaren aurkezpena egin da eta sare sozialetan gaztelaniaz eta ingelesez zabaldu da informazioa. Webgunea ere gaztelania hutsean dago...”

### 463-2021 dosierra

“Gipuzkoako Atletismo Federakuntzatik bidali diguten informazioan, euskara ez da agertzen.”

### 701-2021 dosierra

“Donosti Cup: uztaillean, 10 eta 25 urte bitartekoen futbol taldeen arteko txapelketa da Donosti Cup. Prentsa oharra gaztelaraz bidali dute. Webgunean ez da bermatzen euskararen erabilera era egokian. Akatsak izateaz gain, maiz euskarazko bertsioan gaztelarazko atalak eta azalpenak azaltzen dira.”

### 111-2021 dosierra

“Lilatoiak aplikazio bat jarri du martxan entrenamenduak egin ahal izateko eta ez dago euskaraz. Bestetik, web orrian euskarazko aukera aukeratuta ere, zatiren bat españolez dago.”

Talde, Club zein gimnasio askoren instalazioetako paisaia linguistikoan ere euskaraz ez du tokirik izaten eta egiten den kirol eskaintza gehiena gaztelaniaz izaten da.

**Nork:** astearte, 2021eko uztailak 6 10:02  
**Bidaltze-data:**  
**Nor:**  
**Gela:** Fwd: ACTO SIMBÓLICO DE APERTURA DE LA DONOSTI CUP  
**Eranskinak:** image001.png

----- Forwarded message -----  
**Igorlea:**  
**Date:** 2021 uzt. 4, Iga 18:22  
**Subject:** ACTO SIMBÓLICO DE APERTURA DE LA DONOSTI CUP  
**To:**

Estimados amigos y amigas,

Os adjuntamos un enlace a la noticia en la que informamos sobre el acto simbólico que hemos preparado para inaugurar oficialmente la Donosti Cup 2021:

[\[Un representante de cada club, elegido por sorteo, participará mañana lunes a las 20:30 en un acto simbólico para inaugurar la Donosti Cup 2021.\]](#)

En caso de estar interesados en asistir para cubrir el acto que tendrá unos 15 minutos de duración, os pedimos que nos lo comunicéis por email y os mandaremos la convocatoria de prensa.

Y si a lo largo de la semana necesitáis cualquier información, estamos a vuestra disposición.

Muchas gracias por vuestra atención!

**FAG** Federación Atlética Guipuzcoana  
 Gipuzkoako Atletismo Federakuntza

Anoetako paselekua, 5 - 20014 DONOSTIA  
 Tlf.: 943 45 17 57 Fax: 943 45 39 62  
 e-mail: gal@kirolak.net

En Donostia a 14 de Mayo de 2021

### CAMPEONATO GIPUZKOA ABSOLUTO IND + CLUBES

- Los Campeonatos de Gipuzkoa Absolutos Individual y de Clubes se celebrarán los días 29 y 30 de Mayo 2021 en el miniestadio de Anoeta de Donostia.
- Podrán participar [tod@s](mailto:gal@kirolak.net) los atletas con licencia en vigor por la FAG [nacid@s](mailto:gal@kirolak.net) en el año 2007 ó anteriores que sean admitidos.
- Podrán competir en el Campeonato de Clubes todos los clubes Gipuzkoanos que lo deseen siempre que participen como mínimo en DOCE pruebas.
- Cada equipo estará representado por un/a atleta por prueba y cada atleta podrá puntuar en dos pruebas y relevo.
- Los atletas de las distintas categorías podrán participar en las pruebas según se indica:
  - Senior Todas las pruebas
  - Promesa Todas las pruebas
  - Veterano Todas las pruebas
  - Júnior Todas las pruebas
  - Juvenil En sus pruebas autorizadas.
  - Cadete. En sus pruebas autorizadas.
- Para poder tomar parte en la competición individualmente será obligatorio realizar inscripción previa antes de las 12:00 horas del martes anterior a la celebración de la competición en la extranet de la RFEA. La FAG publicará admitidos el miércoles. Los atletas que no vayan a competir deberán darse de baja antes de las 12:00 horas del jueves. La FAG publicará las listas de salidas el viernes a partir de las 12:00 horas.
- Para participar por equipos solamente habrá que comunicar la intención de participar, antes de las 12 horas del MARTES anterior. La Secretaría puntuará directamente al primer atleta clasificado de cada club. Únicamente en el caso de que un club presente un atleta que vaya a relevo, deberá indicar cuáles son las pruebas en las que puntuará.

**Vuelta Ciclista a Navarra**  
 1.091 tuitos

**Vuelta Ciclista a Navarra** @Vuelta\_Navarra · 19 h

EN MARCHA!!  
 Esta mañana ha tenido lugar en el @navarrarena la presentación de la @Vuelta\_Navarra junto a patrocinadores y autoridades.

LET'S GO !!  
 This morning the presentation of the @Vuelta\_Navarra with sponsors and authorities took place at the @navarrarena.

#NWE21


**NAVARRA**  
 Inicio Equipos Recorridos Medio Sitios de Interés Actualidad f w

### PRESENTADO EL ESPECTÁCULO DEL CICLISMO FEMENINO EN NAVARRA

Navarra Women's (El Clásico) en la ciudad de Irujo se presentó en la ciudad de Irujo en el marco de la celebración de la presentación de esta edición en el **Navarra Arena**, con la asistencia de los mejores ciclistas del mundo.

**Vuelta Ciclista a Navarra**  
 Dos jornadas de ciclismo apasionantes, con las mejores ciclistas del mundo

Euskararen presentziarik ere ez, hainbat kirol jardueratako ohar eta informazioetan.



*BECen jartzekoa den gimnasioaren gaineko publizitatea, gaztelania hutsean.*

**185-2021 dosierra**

“Osasuna futbol taldeak, estatutuen arabera, euskara bultzatzea helburu duen arren, instalazioetan ondoko kartel hau gaztelania hutsean dago.”

**1252-2021 dosierra**

“Polikiroldegi guztian ez dago ezer euskaraz, makina ere ezin daiteke hizkuntzaz aldatu. Euskaldunak ere bertaratzen gara eta gustatuko litzazuke gutxienez karteldegia, oharrak etab. elebidun izatea.”

**382-2021 dosierra**

“Kirol Elkarteak igeriketa ikastaro intentsiboak eskaintzen ditu. Zein hizkuntzatan izango diren galdetuta, gaztelaniaz izango direla erantzun didate postaz. Ez dago beraz euskarazko eskaintzarik.”

**567- 2021 dosierra**

“Antza denez, gimnasio bat edo jarri nahi dute BEC barruan. BEC (Bilbao exhibition center) hein oso handi batean, ez bada guztiz, funts publikoak jasotzen ditu. Bada, gimnasio honen publizitatea erabat espainolez dago.”



**08**

**Lan mundua /**

**Arlo**

**sozioekonomikoa**

Arlo sozioekonomikoan hizkuntza-eskubideen aitortza ez da lehenetsia izaten. Zenbait aurrerapauso txiki eman izan diren arren, sektore ezberdinen borondate eta eremuaren arabera izaten da euskarazko zerbitzuak edo ondasunak eskaintzea.

Lan munduari lotutako zerbitzu publikoetan euskarazko zerbitzua jasotzeko zailtasunak izaten dira eta zerbitzu hauetan eskaintzen diren ikastaro edo bestelako errekurtsoak euskaraz jasotzea ezinezkoa egiten zaio herritarrari gehienetan.

Lanbidek informazioa euskaraz jasotzeko aukera ematen duen arren, herritarrak euskaraz zerbitzua eskatzen ibili behar dira eta askotan zuzenean herritarrari gaztelaniazko komunikazioak bidaltzen zaizkio, kontrako adierazten ez bada, herritarrari gaztelania esleitzen zaiolako.

### 224-2021 dosierra

“Lanbidetik (Jaurlaritza) sms-a bidali didate erdara hutsean. Sekula ez dut gaztelania aukeratu. Guztiz alderantziz. Euskara ahoan ibili dut beti eta trabak eta diskriminazioa besterik ez dut jaso. Ez dezatela erantzun hizkuntza hautatzeko aukera dagoelako hipokresiarekin.”

### 613-2021 dosierra

“Lanbidetik, lan-eskatzaille izaera laster iraungiko zaidala eta, berriztatzearen sms-a bidali didate. Erdara hutsean dago.”

Euskarazko informazioa publikatzean euskara traketsa erabiltzen da eta dena ez da behar bezala euskaraz publikatzen.

### 720-2021 dosierra

“Lanbideren webgunean sartzen naizen aldiro, arazoak besterik ez ditut, euskaldun herritarra naizen aldetik. Euskarazko bertsioan nabilela, zer dela eta “enlaces de interés” gaztelaniaz, gaztelania hutsean?”

2021eko udan Hizkuntza Eskubideen Behatokitik, “Hizkuntza Eskubideak ez daude oporretan” kanpainaren barruan, aisialdiko jarduera ezberdinetan zein ostalaritzan ematen ziren urraketak detektatzeko kanpaina egin genuen. Izan ere, Euskal Herri osoko ostalaritza sektoreak paisaia linguistikoa zein bezeroei ematen zaien arretan eragin handia izan dezake eremu sozioekonomikoaren euskalduntzean. Turismoaren gorakadarekin, bertoko hizkuntza erakargarri egin eta ondasun turistikoa bezala erakutsi beharrean, gaztelania eta frantsesaz gandi, ingelesa, alemana zein bestelako hizkuntzak ere ikusten ditugu Euskal Herriko ostalaritza negozioetan, toki batzuetan euskara ikusezina izaten den bitartean.

Hainbat izan ziren taberna eta jatetxeei helarazi zitzaizkien keak. Paisaia linguistikoa (Covid neurrien oharrak, eskaintza iragartzen duten kartelak, jatetxeetan dituzten produktuak...), karta eta menuak euskaraz ez izatea, webgune eta sare sozialetan euskara ez erabiltzea edo bezeroei arreta euskaraz ez ematea. Azken honi lotuta, zenbait bezero, euskaraz eskatzeagatik erantzun txarrak jasotzen dituztela ere aipatu zuten.

Ostalaritzako karteldegia, iragarkiak...

### 869- 2021 dosierra

“Arreta euskaraz ematen badute ere, kafe-tegiko kartel gehienak erdaraz baino ez dade eta tiketak ere erdaraz ematen dituzte.”



Ostalaritzako hainbat kartel eta ohar, gaztelania hutsean.

### 1254-2021 dosierra

“Taberna berria zabaldu dute. Euskal musika, itxura, zerbitzari bakarra euskalduna... baina karteldegia guztia gaztelania hutsez, baita tiketa ere. Lastima da negozio berri baten aldeko apustua egin, denai euskaldun itxura eman eta gero benetako funtzionamendua gaztelaniaz izatea.”



**667-2021 dosierra**  
“Mostradorean erakusgai zegoena seinatuz eta behatzarekin “bat” eginez “antxo bat” eskatu nuen kontsumizioa. Bertako beharginak “estamos en España y hablame en español!” (Espainian gaude eta espainolez hitz egin”) erantzun zidan. Handik eta rato batera itzuli eta erreklamazioen liburua eskatu genuen gertatutakoa salatzeke eta “vete a tu país” esan niola adierazi zuen arreta egin zigun langileak. Goitik behera ukatzen dut nik horrelakorik esan izana.”

**883-2021 dosierra**  
“Kafetegian sartu bezain laster zerbitzaria agurtu nuen eta euskaraz eskatu nizekion bi edari. Aurpegi erdi haserre erdi serioaz erantzun zidan “en castellano si no te importa””

*Hizkuntza-paisaia eta webguneak gaztelania hutsean, ostalaritzan.*

**1271-2021 dosierra**  
“Bilboko Amaren jatetxeko karta gaztelaniaz eta ingelesez dago, eta euskaraz? Gure hizkuntza eskubideak?”

Bezeroei eskaintzen zaien zuzeneko arretan ere hainbat kexa heldu zitzaizkigun Behatokira:

**654-2021 dosierra**  
“Luzaideko jatetxeko tabernan ez dago euskarazko zerbitzua bermaturik. Bakarrik langileren batek daki euskaraz...”


**1116-2021 dosierra**  
“Hostelería Vasca, SAU enpresaren Iruña kafetegian ezin dugu beti bertako zerbitzariekin euskaraz egin. Horrez gain, menuen, pintxoen eta bestelako informazioa erdaraz (gaztelaniaz eta batzuk ingelesez ere) badaude ere, ez dira, ordea, euskaraz egoten. Aurrekoaz gain, tiketak ere gaztelaniaz baino ez dituzte inprimatzen.”

Iragarki, webgune eta sare sozialetan ere euskarazko mezurik ez:

**716-2021 dosierra**  
“...Establezimenduaren web orria gaztelaniaz baino ezin dezakegu bisitatu.”

Jatetxeetako menu, kartel eta kartak hainbat hizkuntzatan kontsultatzeko aukera izaten da, euskaraz gutxitan.

**192-2021 dosierra**  
“Iruñeko Elizalde izozki-dendak karta irakurtzeko QRak eskaintzen ditu: gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez. Euskaraz ez.”



Hainbat taberna eta jatetxeetan menu, kartel eta kartak ez dira euskaraz eskaintzen.

“ Ostalaritza sektoreak paisaia linguistikoan zein bezeroei ematen zaien arretan eragin handia izan dezake eremu sozioekonomikoa euskalduntzean ”

Merkataritza eremu sozioekonomikoan hizkuntza-eskubideen argazkia egiteko arlo estrategikoa da. Herritarrek behar dituzten kontsumo-gaiak zein hauek saltzen dituzten komertzioek herritarren hizkuntza-eskubideak kontuan hartzea, produktu edo zerbitzuaren kalitatea sustatzeaz gaindi, bezeroak eta hauen eskubideak kontuan hartzea da eta nola ez, negozio ezberdinentzat erakargarritasuna handitu eta bezeroak erakartzeko modua ere bada.

2021ean batik bat, merkataritza kate handiekiko kexak jaso genituen Behatokian. Izan ere, herritarrek bezeroen hizkuntza-eskubideekiko exijentzia maila handiagoa izan beharko luketela uste dute, bai baliabide gehiago dituztelako, euskararekiko atxikimendua dutelako, kontsumitzaile gehiagorengana heltzen direlako, zein EAEn ezarritako zentro handi eta kate batzuk, lege betebeharrak ere badituztelako.

Merkataritza handi eta kateetako paisaia linguistikoan dena gaztelania edo frantsesez errotulaturata dagoela aipatzen zuten herritarrek:

#### 4-2021 dosierra

“Clare-lek ez ditu euskaldunon hizkuntza-eskubideak errespetatzen, bere dendetan ez baitute euskarazko informaziorik izaten, langile gehienek ez baitakite euskaraz eta ematen dizkiguten tiketak gaztelaniaz baino ez baitaude.”

#### 3-2021 dosierra

“Basauriko Aldik ez du euskarazko informaziorik izaten bere saltokietan eta bere tiketak erdaraz baino ez daude.”

#### 217-2021 dosierra

“MasxMenos-ek Tolosan ireki berri duten dendako karteldegi GUZTIA gaztelaniaz dago.”

#### 1065-2021 dosierra

“Bilboko Villarias kalean dagoen Decathlonen dendaren hizkuntza-paisaian euskararen presentzia hutsetik oso gertu gaude. Horrez gain, kutxetan euskara aukeratu badezakegu ere, testuek akatsak dituzte eta txartel bidezko ordainketa gaztelaniaz baino ezin da egin. Halaber, behin ordainduta inprimatzen dituzten tiketak gaztelaniaz baino ez daude.”

#### 1309-2021 dosierra

“Berriozargo Decathloneko hizkuntza paisaian ez dute euskara kontuan hartzen, bezero euskaldunek kontuan har gaitzaten nahi dugu.”



Euskaraz erabat trakets errotulatzeko duten merkatalgu-  
neak ere badira.

Iragarkiak, bezeroei bidaltzen zaizkien mezuak...  
hainbat eta hainbat erdara hutsean bidaltzen dira, bai  
eta webguneetan zein sare sozialetatik zabaltzen den  
informazioa ere. Batzuetan kate komertzial hauek,  
hainbat hizkuntzatan zerbitzua emateko gaitasuna izan-  
ten dute, ez, ordea, euskaraz.

### 263- 2021 dosierra

“Leroy Merlindik sms-ak erdara hutsean  
bidaltzen dizkirate: PUBLI: 10e de regalo  
en tu primera compra en LEROY MERLIN  
Compact Durango hasta el 23 Abril  
+info en [mes.es/duranlmes.es/bajasm](https://mes.es/duranlmes.es/bajasm)”

### 602-2021 dosierra

“Forum Sportetik aspaldi-aspaldian ez dut  
jaso inongo komunikaziorik. Gaur e-maila  
jaso dut; erdara hutsean dago.”

### 726-2021 dosierra

“Tendam Retail, SA enpresaren denda-  
kateek oraindik ere tiketak erdaraz baino ez  
dituzte ematen eta haren weborria ([https://  
myspringfield.com](https://myspringfield.com)) gaztelaniaz edo frantsesez  
baino ezin dugu bistaratu. Gainera, enpresak  
bidaltzen dizkidan posta elektronikokoak eta  
SMS mezuak ere gaztelania hutsean daude.”

### 911-2021 dosierra

“E-maila bidali didate Decathlondik, erdara  
hutsean, inkesta bat bete dezadan. Bete  
liteke gaztelaniaz, frantsesez eta italieraz.  
Euskaldunok aintzatetsi ezean, ez noa  
halakorik betetzen.”



Supermerkatuetan, kartel guztiak gaztelania hutsean.

### 1186-2021 dosierra

“Medical Opticatik sms-ak bidaltzen  
dizkirate erdara hutsean. Sartu berri naiz  
webgunean eta erdara hutsean dago. Bada,  
hala ezin argiago uzten didate ondo egiten  
dudala beste optika batera joanez, duela  
urte nahikotxo egiten dudana moduan.”

### 1187-2021 dosierra

“Domino's Pizzatik erdara hutsean bidaltzen  
dizkirate publizitate sms-ak. Adibidez, aurre-  
ko ostiralean... Webgunea ere gaztelaniaz  
eta katalanez erabili daiteke, baina euskaldun-  
ok ezin dugu geure hizkuntzan erabili.”

### 1240-2021 dosierra

“Institututik LEROY MERLINek Oartzunen  
duen saltokira posta elektronikoko bat bidali  
dugu euskaraz eta “Le informamos que solo  
atendemos solicitudes en idiomas de inglés,  
francés, catalán y español.” erantzun digute.”



Donibaneko merkataritza zentro  
batean, euskara trakets.

### 1059-2021 dosierra

“BM supermerkatuetatik emaila jaso dut,  
“BM te escucha” izenekoa, emailean inkesta  
bat betetzea eskatzen dute, dena gaztelaniaz  
eta inkestan sartzean ere dena gaztelaniaz  
dagoela eta ez didala euskaraz egiteko  
aukerarik bermatzen konprobatu dut.”


2021eko abenduan, gabonetan jostailu-dendetako katalogoetan erabiltzen zen hizkuntzari buruzko kanpaina egin zen Behatokitik. Herritarrek bidali zizkiguten katalogoetan, haurren produktuak saltzen zituzten merkataritza kateek nagusiki frantsesa eta gaztelania erabiltzen zutela ondorioztatzen zen.

Merkataritza guneez gaindi, erosten ditugun produktuetan ere euskarak ez du tokirik izaten gehienetan; etiketak, iragarkiak, zein produktuei buruzko bestelako azalpenak erdara hutsean ezartzen dira.



Behatokiak egindako kanpainan bildutako jostailu-dendetako gabonetako katalogoak. Bertako produktuen etiketak eta iragarkiak ere, erdara hutsean.

Zerbitzuak eskaintzen dituzten bestelako enpresetan ere informazio, arreta, mezu edo iragarkiekiko urraketak jaso ziren.



Enpresa batek jarritako oharra.

### 1125 dosierra

“Honako e-maila jaso berri dut Gaurisa Auto garajetik, erdara hutsean. Atzamar bat ere ez dut mugituko hori betetzen. Duintasun apurtxo bat geratzen zait eta.”

### 1316 dosierra

“Muebles Lufe delako enpresak sare sozial batean (facebook) dena gazteleraz idazten du eremu “nazionalera” eta Portugalera zuzentzen direla arrazoituz. Mezu pribatu bidezko komunikazioa ere gazteleraz jaso dut.”



Enpresa baten oharra, gaztelania hutsean.

### 358-2021 dosierra

“UBIKAREra deitu dut gaur, 943847477 telefonora eta ezin izan dut arreta euskaraz jaso, gaztelaniaz aritu behar izan dut.”

### 766-2021 dosierra

“Iragarkiak eta jendeari zuzendutako oharrak erdara hutsez daude.”

Enpresek ez ezik, alderdi politiko, sindikatu edo elkarte batzuek ere ez dituzte behar bezala zaintzen herritarren hizkuntza-eskubideak.

### 557-2021 dosierra

“Facua, kontsumitzaileen eskubideak defendatzeko ei den antolakundearen Bilboko bulegoaren kanpoko aldea oso esanguratsua da: den-dena erdara hutsean. Antza, euskaldunok ez dugu eskubiderik.”



Facua, kontsumitzaileen eskubideen defentsarako bulegoa.

### 1166-2021 dosierra

“UNICEFen telefonotik deia jaso dut gaur, call center edo telefonogune batetik, itxura; izan ere, arinago hartu dut deia nik, berba egin behar zidanak baino. Euskaraz erantzun dudanean, beste aldeko gizona zekoak segitu du “hola”ka, ez entzunarena egin ez behin eta berriro. Gaztelaniaz besteko hiztunok tratatu hori merezi dugu?”

### 1175- 21021 dosierra

“Hitzaldi baten informazioa heldu zitzaigun gure Iruñeko etxeko postontzira pasa den astean. Irache Kontsumitzaileen elkarte eta Nafarroako Psikologia kolegioa dira antolatzaileak eta Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala laguntzaileak. Ekimenak laguntza publikoak izanik, gure hizkuntza eskubideak errespetatu beharko ziren.”

Alderdi eta sindikatu batzuek ere Euskal Herriko lurralde eremuaren arabera, ez dute beraien kanpaina, iragarki edo mezuetan euskara erabiltzen eta frantsesa edo gaztelaniak zentralitate izaten dute, batik bat, Ipar Euskal Herrian zein Nafarroan.



09

Interes

orokorreko

zerbitzuak

Interes orokorreko zerbitzuetat hartzen ditugu energia hornitzaileak, finantza entitateetako zerbitzuak, garraio zerbitzuak, hedabideak... Izan ere, gizartean oinarritzko zerbitzuak eskaintzen dituzte gehienbat, beraz, hizkuntza-eskubideekiko betebeharrak bereziak dituztela ulertzen dugu.


Kontuan hartu behar da gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan sektore horietako zenbait entitatek lege betebeharrak ere badituztela Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen legeak ezarritakoaren arabera, hala ere, honek ez du ezbetetzeen aurrean ondorioz ezartzen eta beraz, sektore hauetan EAEn dagoen lege babesa handiagoa izan arren (erabiltzaile eta kontsumitzaileen dekretuak zerbitzu hauetan bezeroen hizkuntza-eskubideak bermatu behar direla jasotzen du), praktikan urraketak ematen dira eta ez dituzte behar bezala bermatzen herritarren eskubideak.

Ipar Euskal Herria zein Nafarroako araudietako kontsumitzaileen legedian ez da hizkuntza-eskubideen berriazko aitortzarik egiten, beraz, lurralde eremu hauetan, are nabarmenagoak dira interes orokorreko zerbitzuetako urraketak.

Finantza erakunde eta aseguru etxeei dagokienean, aurreko urtean bezala, bulegoetako paisaia linguistikoarekiko urraketak izan ziren 2021ean. Kanpaina ezberdinak zein paisaia linguistiko finkoa orohar euskaraz ere agertzen diren arren, aldi-baterako ohar, kartel-degi, jarraibide zein bestelakoetan erdara nagusitzen da hainbat bulegotan.

### 448-2021 dosierra

“Heraclio Fournier kaleko (Gasteiz) Kutxabank-en atean erdara hutsean dituzte hainbat kartel eta ohar. Zergatik?”



Aseguru etxe baten eskuorria, gaztelania hutsean.

### 1121-2021 dosierra

“Gernikako La Caixan dirua ateratzera joan eta kartel guztiak gaztelaniaz ikustea oso tristea izan zan. Gernika bezalako herri batean euskaraz bakarrik egon ahal direnean batez ere. Gure hizkuntza eskubideak urratzen.”


Finantza Erakundearen barne dokumentazioa eta prozedurak abiarazteko ere erdara erabiltzen da eta ondorioz, askotan bezeroari ematen zaizkion ordainagiri edo bestelako agiriak erdaraz sortzen dira.

“ EAEn interes orokorreko zerbitzuetako enpresek lege betebeharrak ere badituzte Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen legeak ezarritakoaren arabera ”

### 829-2021 dosierra

“Diru-sarrerak egiten direnean, ematen duten papera zergatik betetzen dute beti, salbuespenik gabe, erdara hutsean? Euskara ezin da normaltasunez erabili?”

Online banka, app-ak, bezero bezala jasotzen diren mezu, sms, email eta bestelakoak, bezeroak informazioa euskaraz jaso nahi duela adierazi arren, online zerbitzuetako eginbide eta kontzeptu batzuk erdaraz edo euskara traketsen agertzen dira eta herritarrak askotan gaztelaniazko bertsioetara jo behar izaten du mezuak ulertu edo tresnak erabiltzerakoan. Gogoratu behar da Ipar Euskal Herrian oraindik Banketxe gehienek ez dituztela jaso nahi izaten euskaraz idatzitako txekiak eta herritarrek Behatokia jo behar izaten dutela laguntza eske.



*Banketxe bat, euskaraz jasotako txekia errefuxatzen.*

### 1163-2021 dosierra

“Triodos banketxetik e-maila jaso dut erdara hutsean, inkesta bat bete dezadan. Sartu naiz estekan ea behintzat inkesta euskaraz egiteko aukerarik dagoen, eta ez dago. Hortaz ez dut beteko. Eskertuko nuke “banketxe etikoa” den aldetik, kontuan izatea hizkuntza eskubideak. E-mail hau Espainiako Erresuma deritzon estatuko inbertitzaile guztiek jasoko genuen, eta gaztelaniaz besteko hizkuntzetakoak ere eskubidedun eta duin bagara.”

### 985-2021 dosierra

“Caixabank-en mugikorrerako “Caixabank pay” izeneko APPak ez du euskarazko bertsioan funtzionatzen, gaztelaniazkoa aldiz ongi dabil.”

Zuzeneko arretan ere ez da behar bezala bermatzen euskaraz arreta jasotzea.

### 365-2021 dosierra

“Santa Lucia aseguru etxeak ez du arreta euskaraz ematen. Gaur bertan deitu dut eta azkena. Iruditzen zait gutxienez ulertzeko gai den norbait egon beharko litzakeela.”

Energia hornitzaileen alorrean, euskaraz zerbitzuak jasotzea ezinezkoa egiten da. Izan ere, gehienek eskaintzen dituzten zerbitzuak Estatu mailan zentralizatuak dituzte eta ez dituzte kontuan hartzen tokian toki errespetatu beharko litzaketan bezeroen hizkuntza-eskubideak. Telefonoz, zuzeneko arretan...

### 356-2021 dosierra

“Naturgyren 900100251 telefonora deitu dut eta erantzungailua galegoz, katalanez, gaztelaniaz eta ingelesez daukate. Zergatik ez euskaraz? Begirune gutxiago merezi dugu?”

Gutunak, fakturak, abisuak, oharrak... gaztelaniaz jasotzen dira gehienetan eta euskaraz jasotzen direnetan, informazio osoa ez dela euskaraz bermatzen aipatzen dute herritarrek.

### 879-2021 dosierra

“Elektrizitateari buruzko informazioa gaztelera hutsean bidaltzen du Iberdrolak Irunen.”

### 996-2021 dosierra

“EDP Comercializadora gas konpainiatik gutun bat jaso dut, gaztelaniaz hutsez, enpresak izenez aldatzen duela jakinarazteko. Hemen-dik aurrera Total Energies Clientes izango omen da. Joan den martxoan gauza berbera gertatu zen eta zuzenean kexua adierazi ondoren, mezu bat jaso nuen esanez hemendik aurrera euskaraz jarriko zirela nirekin harremanetan. Agindutakoa ez dute bete.”

### 237-2021 dosierra

“Informazio gutun bat gaztelera hutsean jaso nuen. Kexa bideratu nuen telefonoz, eta kexaren tramitazio-mezua gaztelania hutsean jaso nuen. Borobiltzeko, akatsez jositako testu baten bidez adierazi didate hemendik aurrera euskaraz jarriko direla nirekin harremanetan.”

### 251-2021 dosierra

“Nortegas enpresaren ikuskapen abisua jaso dut Donostian. Euskarazko bertsioa hutsik. Gaztelera irakurtzera derrigortzen gaituzte oinarritzko informazioa izateko.”

### 1253-2021 dosierra

“Etxeko gas naturalaren hornitzaileak informazio gutuna gaztelania hutsean bidali digu, berriz ere. Bi gutun jaso ditugu haiengandik, biak gaztelania hutsean.”



Gasolindegiko tiketa, gaztelaniz.



Gasolindegi bateko tiketa.



Gasolindegiko kartelak, gaztelania hutsean.

sektoreak 2021ean ere hainbat keza jaso zituen. Batik bat herritarrek konpainia handietatik jasotzen dituzten deietan euskaraz ez artatzeagatik izan ziren, baina baita iragarki, gutun, email zein bestelakoengatik ere.

**442-2021 dosierra**  
“...telefonotik deitu zidaten. Euskaraz hartu bainuen deia, ez entzunarena egiten zuen beste aldeko emakumeak, behin eta berriro. Deitu dut horra, eta Vodafone-rena da, erdara hutsean azaltzen den lokuzioaren arabera.”

dit ez duela zertan euskara jakin. Ondotik frantsesez eskatu dionari, frantsesez hitz egin eta erantzun dio batere arazorik gabe.”

**1115-2021 dosierra**  
“Urbi Low Cost enpresaren Basauriko gasolindegian ezinezkoa da erosketa-prozesua osorik euskaraz egitea, pantailan euskara aukeratuta ere zenbait testu gaztelaniaz agertzen direlako. Gainera, tiketak gaztelania hutsean inprimatzen dira.”

Herritarren arretarekiko betebeharrak bereziak izan beharko litzuzkeen sektorea izan arren, telekomunikazio enpresen

**189-2021 dosierra**  
“Gaur, 11:30ak aldera, Vodafone-rik deitu naute zerbait eskainiz gaztelera hutsean. Euskaraz erantzun diot eta hau esan dit operadoreak: “podrias tener un poco de verguenza y contestarme en castellano!” Noiz arte horrela?”


**357-2021 dosierra**  
“Euskaltelera deitu dut arratsaldeko 8ak aldera eta ezin izan dut arreta euskaraz jaso. Esan didate arratsaldeko 5ak arte posible dela arreta euskaraz jasotzea, baina ordu horretatik aurrera ez.”

2021ean, hainbat izan ziren Euskal Herriko gasolindegi ezberdinetan zerbitzua euskaraz eskatzeagatik eman-dako urraketak ere.


**764-2021 dosierra**  
“Irungo Nafarroako etorbideako BPren gasolindegian oharrak gaztelera hutsez daude.”

**1214-2021 dosierra**  
“Behobiako Repsolen gasolindegian euskaraz egin dut eskaera eta bertako langileak esan

“ Herritarren arretarekiko betebihar bereziak izan beharko lituzkeen sektorea izan arren, telekomunikazio enpresen sektoreak 2021ean ere hainbat kexa jaso zituen ”



Euskal Hirigune Elkargoko autobus zerbitzuaren webgunea, frantsesez.



Internet konpainiaren publizitatea.

**93-2021 dosierra**

“WIKAIren publizitatea jaso dut nire postontzian. Ehuneko ehun nafarra baina ez dute publizitaterik euskaraz egiten euskara ofizial den nire herrian.”

**31-2021 doseirra**

“Virgin Telcotik sms-a bidali didate erdara hutsean.”

Azkenik, garraio-zerbitzuek helarazten dituzten, mezu, ohar, email zein bestelako informazioetan eman ziren zenbait urraketa ere jaso genituen.

**1085-2021 dosierra**

“Chronoplus autobus zerbitzuaren webgunea (<https://www.chronoplus.eu/>) osoki frantsesez da. Euskal Hirigune Elkargoko zerbitzua izanki, zerbitzua euskaldunontzat eta gaskoinentzat ere bada. Ondorioz, gure hizkuntza eskubideak eta Elkargoaren hizkuntza politika errespetatzeko, zerbitzua euskaraz eta gaskoinenez ere eskaini behar litaike.”

**718-2021 dosierra**

“KLM konpainiak bidaltzen dizkigun posta elektronikoko guztiak gaztelaniaz baino ez daude. Era berean, konpainiaren web orria ezin dugu euskaraz bistaratu, ez Frantzia ez Espainia estatuen barruko aukeretan ezta bestelako moduren baten ere.”






Telekomunikazio enpresa bateko publizitatea, gaztelaniaz.

**274-2021 dosierra**

“La Union autobus konpainiarekin Iruñatik Bilborako bidaia egin nuen martxoaren 30ean. Autobusean erabiltzaileei zuzendutako oharra gaztelania hutsean ageritzen zen.”



Autobus konpainiaren oharra, Iruñeatik Bilborako bidaiari.

**1282-2021 dosierra**

“Loiun 10:35erako programatutako Lanzaroterako hegaldian, inongo unetan ez dute erabili Air Europako langileek euskararik, ez fakturatzean, ez sartzean, ez hegazkin barruan. Hegazkinetako hizkuntza paisaia oso-oso erdara hutsean dute. Hegazkina abiatu orduko eman ohi diren segurtasuneko oharra gaztelaniaz azaldu ahala pantailatan irudiak agertu dira, lagungarri, ingelesezko azpidatziekin batera.”



Telekomunikazio konpainia baten kartela, euskara traketsen.



HIZKUNTZ  
ESKUBIDEEN  
BEHATOKIA